# Eskura

**ZUMAIAKO UDAL ALDIZKARIA** · 2023ko otsaila · **06**




Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

ESKURA
Zumaiako udal aldizkaria
2023ko otsaila
6. zenbakia

Lege gordailua
LG D 00145-2020

Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

Twitter: @zumaiakoudala
Facebook: Zumaiako Udala

**UDALETXEA:** Foruen plaza · 943 86 50 25 · udala@zumaia.eus · www.zumaia.eus · **Neguko ordutegia:** 08:00-14:30

2021 Bikain euskararen kalitate ziurtagiria

## Alkatearekin, zinegotziekin eta oposizioko taldeekin harremanetan jartzeko:

### UDAL GOBERNUKO KIDEAK. EH BILDU

**Alkatea:**
Iñaki Ostolaza
*alkatea@zumaia.eus*

**Hirigintza, ingurumena, zerbitzuak eta auzoak:**
Iñaki Ostolaza
*alkatea@zumaia.eus*

**Tokiko garapena, ekonomia sustapena eta turismoa:**
Alex Oliden
*aoliden@zumaia.eus*

**Ogasuna:**
Arantxa Gajate
*agajate@zumaia.eus*

**Pertsonala:**
Asier Arakistain
*aarakistain@zumaia.eus*

**Euskara eta hezkuntza:**
Maddi Aldalur
*maldalur@zumaia.eus*

**Kirolak:**
Arritxu Iribar
*airibar@zumaia.eus*

**Kultura:**
Marina Bidasoro
*mbidasoro@zumaia.eus*

**Gizarte zerbitzuak:**
Jose Mari Azkue
*jazkue@zumaia.eus*

**Berdintasuna, gazteria, aniztasuna eta parte hartzea:**
Maider Alberdi
*malberdi@zumaia.eus*

### EAJ UDAL TALDEA

eaj@zumaia.eus
622 699 419 (deiak eta WhatsApp mezuak)

### PSE-EE UDAL TALDEA

arritxu-maranon@socialistas-guipuzcoanos.com





Iñaki Ostolaza Esnal
**Zumaiako alkatea**

**Zumaiar agurgarria:**

Hasi da urte berria. Etxekoekin eta lagunartean pasatu ditugu neguko opor epel hauek, eta, indarrak hartuta, 2023ari heltzeko momentua iritsi zaigu.

Gabonek ez digute egungo egoerarekiko kezka eraman, ordea. Kezkaz bizi dugu egunerokoa eta etorkizuna. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da etorkizuneko erronkei aurrea hartzea. Horretan ari gara, eta horretan jarraituko dugu. Dena den, ez dugu egunerokoa ahaztu behar; ezinbestekoa da herritar guztiok bizitza duina izan dezagun bermatzeko lan egitea. Horretan ere jarriko ditugu gure indar guztiak.

Desesperantza garaiotan, babestu eta zaindu dezagun elkar. Goza dezagun bizitzaz, eta ez diezagutela irribarrea lapurtu. Besterik gabe, urte berri ederra opa dizuet herrikide guztiei.

**Urte berri on!**

***Estimado/a zumaiarra:***

*Empieza el nuevo año. Hemos disfrutado de las cálidas vacaciones de invierno con familiares y amigos, y ahora, con las fuerzas renovadas, es momento de encarar este 2023.*

*Las Navidades no se han llevado consigo nuestra preocupación por la situación que vivimos. Preocupación por el día a día y por el futuro. Por eso, es más necesario que nunca anticiparse a los retos del futuro. En eso estamos, y en eso seguiremos. Ahora bien, no debemos olvidar el día a día; resulta imprescindible trabajar para garantizar que todos y todas las ciudadanas tengamos una vida digna. Y también en ello pondremos todas nuestras fuerzas.*

*En estos tiempos de desesperanza, protejámonos y cuidémonos mutuamente. Disfrutemos de la vida y que no nos roben la sonrisa. Sin más, os deseo a todos y a todas un muy buen año nuevo.*

***Urte berri on!***

Zumaia bizitzeko moduko herria izatea helburu duten 98 proiektu eta ekimenek osatzen dute 2019-2023 Gobernu Plana.

Gobernu Planaren jarraipenerako prestatutako webgunean kontsultatu dezakezu ekimen bakoitza zertan den:

**bizitzekoda.zumaia.eus**




Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA





**06** ‘Proiektu berriei begira’ jartzeko aurrekontuak



**14** Haurrek marraztutako parkea egingo da Mariantonen



**20** Moilaberri eta Algorri eraberritzeko dirulaguntza lortu du Zumaiak



**23** Larretxo auzuneko irisgarritasuna hobetzen



**26** 2023 amaieran hasiko dira Torreagako etxebizitzak eraikitzen




**28** Zumaiak badu LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko ekintza plana



**31** Memoria historikoa eraikitzen

**32 LABUR** AZKEN ALBISTEAK • **36 LABUR** OBRAK • **42 GERTUTIK** FOTOTEKA • **43 ATZO GAUR DA** • **48 ELKARRI ENTZUN** • **50 KLISK!** • **52 AGENDA**

# 24,8 milioi euroko aurrekontua 2024rako

Irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituzte 2024an, baita kultur, kirol eta hezkuntza azpiegituretan hobekuntzak ere. Horiekin batera, bi erronka potolori helduko diote: zaintza arloari, batetik; eta mugikortasun eredua eraldatzeko planaren diseinuari, bestetik. Guzti hori zumaiarren eguneroko beharrei erantzuteari utzi gabe egin nahi dute.

24.8 milioi euroko aurrekontua izango du Udalak 2024an, eta, Iñaki Ostolaza alkatearen esanetan Udal Gobernuaren helburu nagusiak dira “herritarren eguneroko beharrei erantzuten jarraitzea, eta etorkizuneko erronkei begira lanean segitzea”.

7.6 milioi euro erabiliko dituzte inbertsioetarako. Hala ere, Unai Larrañaga ogasun zinegotziaren arabera, benetako balioa Zumaiak egunero eskaintzen dituen zerbitzu eta aukeretan dago, “zerbitzu publiko sendoak edukitzean, eta eguneroko beharrei modu sendoan erantzutean”. Halaber, inbertsio guztiek “herritarren beharrei erantzungo diete zuzenean”.

Horiekin batera, etorkizuneko erronkei aurre egiteko neurriak ere hartuko dituzte, hala nola, adinekoen egoeraren diagnostikoa egitea, edota Mugikortasun Plana idatzi eta garatzen hastea. Gainera, irisgarritasunean hobekuntza lanak egiten jarraituko dute, 520.000 euroko inbertsioarekin.

Azaroaren 29ko osoko bilkuran aztertu zuten aurrekontu proposamena, eta Udal Gobernua osatzen duten EH Bilduko 10 zinegotzien aldeko botoekin onartu zituzten. PSE-EEko ordezkariak ezezko botoa eman zuen osoko bilkuran, eta EAJ ere aurrekontu proposamenaren aurka agertu zen.

Aurrekontua funtsezko hiru zutabetan egituratzen da. Unai Larrañaga ogasun zinegotziaren esanetan, ez dira zutabe isolatuak; eguneroko Zumaia hobetzen jarraitzeko, ezinbestekoa da inbertsioak egitea, adibidez; halaber, inbertsio guztietan Zumaia bizigarriaren ideia jarriko dugu erdigunean. Hori horrela, nabarmendu dute guztiek ere "komunitatearen ongizatea bultzatu eta udal-zerbitzuen eta azpiegitura publikoen indartzea helburu duen ikuspegi estrategiko bat dutela".

*El Ayuntamiento contará en 2024 con un presupuesto de 24.8 millones de euros y, según el alcalde, Iñaki Ostolaza, los objetivos del Gobierno Municipal son "seguir atendiendo a las necesidades cotidianas de la ciudadanía y trabajar de cara a los retos del futuro".*

*Destinarán 7.6 millones de euros a inversiones. Sin embargo, según el concejal de hacienda, Unai Larrañaga, el valor real está en los servicios y oportunidades que ofrece Zumaia a diario, "en disponer de unos servicios públicos sólidos, y en responder de forma sólida a las necesidades cotidianas de la ciudadanía". Asimismo, todas las inversiones "responderán directamente a las necesidades de los ciudadanos".*

*Junto a ellos, también se adoptarán medidas para hacer frente a los retos del futuro, como la elaboración de un diagnóstico de la situación de las personas mayores, o el inicio de la redacción y desarrollo del Plan de Movilidad. Además, se seguirán realizando obras de mejora en la accesibilidad con una inversión total de 520.000 euros.*

*La propuesta presupuestaria fue tratada en el pleno del 29 de noviembre y aprobada con los votos a favor de los 10 concejales de EH Bildu que conforman el Gobierno municipal. El representante del PSE-EE votó 'no' en el pleno, mientras que el PNV también se opuso a la propuesta presupuestaria.*

*El presupuesto se estructura en tres pilares fundamentales. El concejal de hacienda, Unai Larrañaga, asegura que «no son pilares aislados; para seguir mejorando la Zumaia del día a día, es imprescindible hacer inversiones, por ejemplo; también vamos a poner en el centro la idea de Zumaia habitable en todas las inversiones. En este sentido, han destacado que todos ellos tienen "una visión estratégica que busca impulsar el bienestar de la comunidad y el fortalecimiento de los servicios municipales y de las infraestructuras públicas".*

## Eguneroko Zumaia

Aurrekontu proposamenaren lehen zutabea Zumaiako zerbitzu orokorrak ordaintzeko erabiliko da. Honen barruan daude Udalak egunerokoan eskaintzen dituen zerbitzuak: ikastaroak, kultur eskaintza, kirol jarduerak... Udalak konpromisoa du Zumaia leku bizia eta dinamikoa izaten jarraitzeko zerbitzuak mantendu eta hobetzeko. Festetako diru-partidetan igoerak egingo dira, adibidez, eta sormenerako dirulaguntzetan egindako igoera mantenduko dute. Kirol eta kultur programazioa ere sendo mantenduko dute, baita ikastaro eskaintza ere.

*El primer pilar de la propuesta presupuestaria se destinará a sufragar los servicios generales de Zumaia. Incluye los servicios que ofrece el Ayuntamiento en el día a día: cursos, oferta cultural, actividades deportivas... El Ayuntamiento tiene el compromiso de mantener y mejorar los servicios para que Zumaia siga siendo un lugar vivo y dinámico. En las partidas de fiestas se realizarán subidas, por ejemplo, y se mantendrá el incremento en las subvenciones a la creatividad. También mantendrán sólida la programación deportiva y cultural, así como la oferta de cursos.*

## Mugikortasun Plana:

Hurrengo urteetako eguneroko Zumaia aldatuko duen ildo bati begira ere jarriko da Udala. Mugikortasun Plana idazteko partida sortu dute, Zumaian oinezkoei eta bizikletei lehentasuna eman, eta mugikortasun eredu jasangarria sustatzeko.

*Además, se pondrán de cara a una línea que cambiará la Zumaia diaria de los próximos años. Han creado una partida para la redacción del Plan de Movilidad, con el objetivo de dar prioridad a peatones y bicicletas en Zumaia, y promover unmodelo de movilidad sostenible.*







# Zumaia hobetzen jarraitzeko inbertsioak

Bigarren zutabea, 7.6 milioi eurokokoa, epe luzerako hazkunderako funtsezko inbertsioetan zentratzen da, guztiak ere zumaiarren eguneroko bizitza hobetzeko edota helburu estrategikoei erantzuteko.

Epe laburrean eginda ikusiko ditugun obra guztiak norabide estrategiko berean kokatuta egonik, Zumaiako herriaren hirigintza ikuspegiari osorik eta modu integralean erantzuteko lanean jarraituko dute:

64.800 euro
**Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa amaitu eta martxan jartzeko**

50.000 euro
**Mugikortasun Plana idazteko**

135.000 euro
**Hirigintza azterlanak**

*El segundo pilar, de 7.6 millones de euros, se centra en las inversiones clave para el crecimiento a largo plazo. Estando todas las obras que veremos ejecutadas a corto plazo ubicadas en la misma dirección estratégica, seguirán trabajando para dar respuesta integral y completa a la visión urbanística del pueblo de Zumaia. Así, destinarán 64.800 euros a la finalización y puesta en marcha del Plan General de Ordenación Urbana y 50.000 euros a la redacción del Plan de Movilidad.*

3.350.000 euro
**Komentuaren eraberritzea, lorategia barne**
*Reforma del convento también el jardín*

680.000 euro (+ 100.000 euro, konpromisozko kreditua)
**Marianton parkea**
*Parque de Mariantón*

620.000 euro
**Aita Mari eskolako lehenengo solairua eraberritzea**
*Reforma del primer piso de la escuela Aita Mari*

520.000 euro
**San Jose auzoaren berrurbanizazioa**
*Reurbanización del barrio de San José*

350.000 euro
**Itzurunbideko igogailua**
*Ascensor de Itzurunbide*

228.281 euro
**Estazioko ur hornidura sare nagusia aldatzea**
*Mejora en vías públicas*

120.000 euro
**Ur horniduraren sareetan hobekuntzak**
*Mejoras en infraestructuras de abastecimiento de agua*

100.000 euro
**Bide publikoetan hobekuntzak**
*Mejora en vías públicas*

100.000 euro
**Moilaberriko proiektuaren idazketa**
*Redacción de la dirección de obra de Moilaberri*











# Kirol arloko inbertsioak

Kirol azpiegituretan ere inbertsioak egingo dituzte. Kiroldegia eraberritzeko beharrezko prozesua martxan jartzearekin batera, egungo azpiegituren egoera hobetzea da asmoa.

Gainera, talde federatuei laguntza ematen jarraituko du Udalak, eta bestelako kirol jarduerak diruz laguntzen jarraituko du (kirol probak edota kirolarekin lotutako hitzaldiak, hala nola).

*También harán nversiones en infraestructuras deportivas. Con la puesta en marcha del proceso necesario para la reforma del polideportivo, la idea es mejorar el estado de las infraestructuras actuales.*

*Además, el Ayuntamiento seguirá apoyando a los equipos federados y subvencionando otras actividades deportivas como pruebas deportivas o conferencias relacionadas con el deporte.*

250.500 euro
**Kiroldegia eraberritzeko proiektua eta obra zuzendaritza, parte hartze prozesuarekin**
*Proyecto de reforma del polideportivo y dirección de obra con un proceso participativo*

122.200 euro
**Hobekuntzak kiroldegiko instalazioetan: futbol zelaian argiteria eta markagailu berria; kiroldegian makinaria berria; eta eskubaloi zelaian markagailu berria**
*Mejoras en el campo de fútbol, sala de maquinas y campo de balonmano*

90.000 euro
**Pump trucka eta skate parke berria**
*Nuevo parque de pump trucka y skate*

48.400 euro
**Aitzuri pilotalekuan argi berriak**
*Renovación de las luces del frontón Aitzuri*

46.000 euro
**Itsas kiroldegirako grua berria eta hobekuntzak**
*Nueva grua y mejoras en el Polideportivo Marítimo*









# Zumaia bizigarria

Hirugarren zutabea gizarte-babesean, tokiko ekonomia indartzean eta parekidetasunean oinarritzen da, eta hemen kokatzen dituzte: egoera zaurgarrienean dauden herritarrei laguntzak ematea, tokiko merkatariari laguntzea, ekonomia soziala sustatzea, euskara indartzeko politikak, berdintasunaren sustapena, alokairurako dirulaguntzak ematen jarraitzea edota etxebizitza politikaren arloan lanean jarraitzea, beste askoren artean. Ikuspegi horrek Udalak komunitatearen ongizatearekin eta parekidetasuna sustatzearekin duen konpromisoa islatzen duela esan duela nabarmentzen du Udal Gobernuak.

*El tercer pilar se basa en la protección social, el fortalecimiento de la economía local y la paridad, y los sitúan aquí: ayudas a la ciudadanía más vulnerable, apoyo al comercio local, fomento de la economía social, políticas de refuerzo del euskera, fomento de la igualdad, seguir subvencionando el alquiler, y cambiado las políticas de vivienda entre otros muchos. Según el Gobierno Municipal esta visión refleja "el compromiso del Ayuntamiento con el bienestar de la comunidad y la promoción de la paridad".*





## Zaintza lanen inguruko lanketarekin jarraitzeko:

55.000 euro
**Adinekoen egoeraren inguruko diagnostikoa**
*Diagnóstico sobre la situación de las personas mayores*

18.150 euro
**Zaintzaren inguruko lanketarekin jarraitzea, Prebentzio Mahaiaren barruan**
*Continuar con la línea de trabajo de los cuidados, en la Mesa de Prevención*

# Egoera ekonomiko 'sendo eta egonkorra'

Aurrekontu-proposamenaren aurkezpenean, Unai Larrañaga ogasun zinegotziak Zumaiako Udalaren sendotasun ekonomikoa azpimarratu zuen.

Foru Funtsaren diru-sarrera 8.9 milioi eurokoa izango dela aurreikusten da, aurreko urtean baino % 8.52 gehiago. Udalaren diru-bilketak ere gora egin du oraintsuko udal-ordenantza fiskalei esker, zuzeneko zergetan % 3.32 gehiago eta tasetan % 7.11 gehiago.

6.8 milioi euroko defizita aurreratu arren, espero da ez dela horretara jo beharko egungo baldintza ekonomikoak direla eta. Gainera, 700.000 euroko aurrezpen garbia aurreikusten da, udal-baliabideen kudeaketaren eraginkortasuna islatuz.

Larrañagak herritarren aurrezkiak modu eraginkorrean erabiltzeko erronka nabarmendu zuen, batez ere azken urteetan KPI altu batek eta udalak kontratatutako zerbitzuen garestitzeak markatutako testuinguru ekonomiko batean. Igoera hori aurrekontuaren gastu orokorren kapituluan islatzen da. Bertan, normaltzat jotzen diren arren, Zumaiako biztanleen bizi-kalitatea nabarmen hobetzen duten zerbitzuak sartzen dira. Testuinguru horretan, zerbitzu horiek komunitatearen eguneroko ongizatean laguntzen duten elementu gisa baloratzearen garrantzia nabarmentzen da.

Azken gai horrekin lotuta aipamen bat egin zuen ogasun zinegotziak: "Udalak, askotan, zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen interesekin talka egiten du, askotan merkatutik kanpoko prezio igoerak egiten dituztelako haien indar egoera baliatuz". Horiek horrela, azken urteotako bidean sakontzen jarraituko dutela nabarmendu du: "behar-beharrezkoak diren zerbitzuak udalarenak eginez (publifikatuz), eta, hori posible ez denean, bestelako enpresa eredu batzuen bilaketa zein sorrera sustatuz".

*Durante la presentación de la propuesta presupuestaria, el concejal de hacienda, Unai Larrañaga, subrayó la robustez económica del Ayuntamiento de Zumaia. Se proyecta un ingreso del Fondo Foral de 8.9 millones de euros, con un incremento del 8.52% en comparación con el año anterior. La recaudación del Ayuntamiento también experimenta un aumento gracias a las recientes ordenanzas fiscales municipales, con un 3.32% más en impuestos directos y un 7.11% más en tasas.*

*A pesar de anticipar un déficit de 6.8 millones de euros, se espera no tener que recurrir a él dadas las condiciones económicas actuales. Además, se proyecta un ahorro neto de 700,000 euros, reflejando la eficiencia en la gestión de los recursos municipales.*

*Larrañaga destacó el desafío de utilizar los ahorros de los ciudadanos de manera eficiente, especialmente en un contexto económico marcado por un IPC elevado en los últimos años y el encarecimiento de los servicios contratados por el ayuntamiento. Este incremento se refleja en el capítulo de gastos generales del presupuesto, que incluye servicios que, aunque considerados normales, mejoran significativamente la calidad de vida de los habitantes de Zumaia. En este contexto, se enfatiza la importancia de valorar estos servicios como elementos que contribuyen al bienestar diario de la comunidad.*

*En relación con este último asunto, el concejal de hacienda hizo una alusión: "El Ayuntamiento muchas veces choca con los intereses de las empresas privadas que prestan servicios, que muchas veces realizan subidas de precios fuera de mercado aprovechando su situación de fortaleza". En este sentido, ha destacado que se seguirá profundizando en el camino de los últimos años, "haciendo públicos los servicios estrictamente necesarios del ayuntamiento y, cuando esto no sea posible, fomentando la búsqueda y creación de otros modelos empresariales".*

## 24.8 milioi euroko aurrekontua

## Diru-bilketan goranzko joera

Onartu berri diren udal ordenantza fiskalak direla-eta, Udalak goranzko joera izango du diru-bilketan (%3.32 gehiago zerga zuzenetan eta %7,11 gehiago tasetan)

## 8.9 milioi euro Foru Funtsetik

Aurreikuspenen arabera, 8.9 milioi euroko diru-sarrera izango du Foru Funtsetik (%8.52ko igoera aurreko urtearekin alderatuta)

## 6.8 milioi euroko defizita

6.8 milioi euroko defizita aurreikusten bada ere, Udalak espero du ez duela baliatu beharko, egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta.

## 700.000 euroko aurrezki garbia

Horrek udal-baliabideen kudeaketaren eraginkortasuna agerian uzten du.



## EAJ: "Oinarri sendorik gabeko aurrekontua"

EAJk udal gobernuaren proposamenaren aurka bozkatu zuen. Gastua kudeatzeko eredua kritikatu zuen Iker Mardarasek, eta, diru-sarrerak handitu arren, funtzionamendu-gastuak neurri berean hazi direla, "inbertsioak partzialki finantzatu gabe". Haren esanetan gaur egun administrazioak dituen diru-sarrera kopuru handiak ez dira ohikoak, eta aurrezki garbiaren eta kanpoko laguntzekiko mendekotasunaren bilakaerarekiko kezka azaldu zuen. Hala, aurrekontua "handia baina oinarri sendorik gabea" dela esan zuen, "ez dagoela etorkizunera begira, eta udal-kudeaketarako gaitasuna murrizten duelako".

Bestalde, zenbait proiekturi kritika egin zien. Kiroldegiko lanak lehenbailehen hasteko beharra nabarmendu zuen, eta Erkibe eraikineko Elikagunearen proiektua kritikatu zuen, honakoa ludoteka gisa erabiltzea proposatuz. Halaber, zalantzan jarri zuten Beheko Plazako proiektuen "inplementazio desordenatua", Marianton parkeko eremu estaliaren eta Komentuko lorategiaren aurrekontu handia kritikatzearekin batera. Azkenik, Mardarasek kaleen garbiketan eta mantentze-lanetan dagoen hutsunea nabarmendu zuen, eta "Kale Txukuntasun Ordenantza" bat egiteko eskatuz. Gainera, adierazi zuten Udalak ez dituela betetzen gardentasun-baldintzak, ETELen arabera.

*El PNV de Zumaia votó en contra de los presupuestos de 2024 propuestos por el gobierno municipal. Iker Mardaras criticó el modelo de gestión del gasto, y que, a pesar del aumento de los ingresos, los gastos de funcionamiento han crecido en la misma medida "sin financiar parcialmente las inversiones". También destacó que las elevadas cifras de ingresos con las que cuenta la administración en la actualidad "no son habituales ni son reflejo de la realidad". También expresó su preocupación por la evolución del ahorro neto y la dependencia de las ayudas externas. Así, calificó el presupuesto de "grande pero sin bases sólidas" porque "no mira al futuro y reduce la capacidad de gestión municipal".*

*Por otra parte, el PNV criticó algunos proyectos concretos y su desarrollo. Destacó la necesidad de iniciar cuanto antes las obras del polideportivo y criticó el proyecto de Elikagunea en el edificio Erkibe, proponiendo la utilización de este como ludoteca. También cuestionaron la "desordenada implementación" de los proyectos de Beheko Plaza, al tiempo que criticaron el elevado presupuesto de la zona cubierta del parque de Mariantón y el jardín del Convento. Finalmente, Mardaras destacó el vacío existente en la limpieza y mantenimiento de las calles, solicitando la elaboración de una "Ordenanza de Limpieza Viaria". Además, señalaron que el Ayuntamiento no cumple los requisitos de transparencia, según la LILE.*

## PSE-EE: "Genero ikuspegiaren txostena falta da"

PSE-EEko Duñike Arrizabalagak ere aurrekontuen aurkako botoa eman zuen, genero ikuspegiari buruzko txostenik ez zegoelako. Udal Gobernuak Euskadiko berdintasun-legeekiko konpromisorik ez duela kritikatu zuen, eta, partida batzuekin ados egon arren, aurkako botoa eman zuen.

*Duñike Arrizabalaga del PSE-EE votó en contra de los presupuestos municipales de 2024 por la falta de un informe de perspectiva de género. Criticó la carencia de compromiso del Gobierno municipal con las leyes de igualdad de Euskadi y, a pesar de estar de acuerdo con algunas partidas, votó en contra.*

## Udal Gobernuaren erantzuna

Iñaki Ostolaza alkateak EAJren kritikei erantzun zien inbertsio handiak dakartzaten proiektuak ezartzeak bere denbora eskatzen duela azalduz. Hala, kiroldegia bezalako proiektuak aurrera ateratzeko prozedurak bete behar direla nabarmendu zuen. Beheko Plazaren birmoldaketari dagokionez, hauteskunde-programan jasotako proiektua izanik aurrera eramango dutela esan zuen, "espazio a modu integralean kontuan hartuta". Komentuko lorategiko obra egitearen garrantzia ere azpimarratu zuen, Udalak lortutako 400.000 euroko dirulaguntza ez galtzeko. Halaber, argitu zuen Marianton parkearen proiektua aterpetik harago doala, eta espazio berri bat sortuko dela. Garbiketaren inguruko kritiken aurrean, Ostolazak azaldu zuen laster kale-garbiketa zerbitzua eskainiko dutela, eta, ordenantza bat ez badago ere, kartel eta pankartak kentzeko Udalak prozedura zehatz bat duela egun.

PSE-EEren kritikari erantzunez, alkateak esan zuen genero ikuspegiari buruzko txostena falta den aztertuko duela, eta, ikuspegi hori kontuan hartuta lanean jarraituko dutela.

*El alcalde Iñaki Ostolaza respondió a las críticas del PNV explicando que la implementación de proyectos que conllevan grandes inversiones conlleva su tiempo. Así, destacó la necesidad de cumplir los procedimientos para sacar adelante proyectos como el polideportivo. En relación con la remodelación de Beheko Plaza, mencionó que es un proyecto que se recogió en su programa electoral y que lo van a llevar adelante, "de forma integral, teniendo en cuenta todo el espacio". Respecto al jardín del convento, subrayó la importancia de ejecutar la obra para no perder la subvención de 400.000 euros que ha conseguido el Ayuntamiento para la ejecución. También aclaró que el proyecto del parque Mariantón va más allá de la cubierta, y que se creará un nuevo espacio, más allá de una cubierta y un parque. Ante las críticas sobre la limpieza, Ostolaza explicó que pronto van a licitar el servicio de limpieza viaria, y, aunque no exista una ordenanza, hay un procedimiento establecido para la retirada de pancartas y carteles.*

*Respondiendo a las críticas del PSE-EE, afirmó que analizará la presencia del informe sobre perspectiva de género y seguirá trabajando considerando esa perspectiva.*






# Zumaian zaintza zaintzen

Prebentzio Mahaiak sustatuta, zaintzaren inguruko diagnostikoa egin du Elhuyar fundazioak Zumaian. Hurrengo pausoa ekintza plana diseinatzea izango da, arlo honi dagokionez hurrengo pausoak definitzeko.

Zumaiako Prebentzio Mahaiak eta Udalak prozesu integral bati ekin diote azken hilabeteotan, herrian zaintzaren eta zaintza lanen sistema birpentsatzearen eta berregituratzearen garrantziari buruzko kontzientzia gero eta handiagoari erantzunez. Helburua da zaintza sistema berrikusi eta berpentsatzea, gizartearen beharrei eraginkortasunez aurre egiteko eta ikuspegi inklusiboagoa eta ekitatiboagoa izango duen eredua sortzen hasteko.

Zaintzak erabateko eragina du herritarren bizi-kalitatean, baita komunitate edo herri bizigarriaren eraikuntzan ere. Testuinguru horretan, zaintza-sistemaren berdefinizioa herritarren eta eragileen parte hartzearekin garatu nahi da, ikuspegi kolektibo eta kontziente bat bultzatuz, Zumaiaren eta herritarren errealitate eta behar desberdinak kontuan hartuko dituena.

Zainketak birpentsatzeko prozesu horren bidez, egungo sistemaren gabeziak identifikatu eta jorratu ez ezik, ekintza kolektiboa eta ahalduntze komunitarioa susatu nahi dituzte. Gizarte-eraldaketarako oinarri sendoa eraiki nahi da, egitura tradizionalak gainditz eta harreman eta egitura justuagoak eta solidarioagoak sustatuz. Hori horrela, prozesu honekin zainketa eredu berri baten oinarriak ezarri nahi dira.

Zainketak birpentsatzeko prozesu horren bidez, egungo sistemaren gabeziak identifikatu eta jorratu ez ezik, ekintza kolektiboa eta ahalduntze komunitarioa susatu nahi dituzte. Gi-



zarte-eraldaketarako oinarri sendoa eraiki nahi da, egitura tradizionalak gaindituz eta harreman eta egitura justuagoak eta solidarioagoak sustatuz. Hori horrela, prozesu honekin zainketa eredu berri baten oinarriak ezarri nahi dira.

*El cuidado tiene un impacto absoluto en la calidad de vida de la ciudadanía, así como en la construcción de una comunidad o pueblo habitable. En este contexto, se pretende desarrollar la redefinición del sistema de cuidados con la participación de ciudadanos y agentes, impulsando una visión colectiva y consciente que tenga en cuenta las diferentes realidades y necesidades de Zumaia y de la ciudadanía.*

*Este proceso de repensar los cuidados pretende identificar y abordar las carencias del sistema actual y estimular la acción colectiva y el empoderamiento comunitario. Se pretende construir una base sólida para la transformación social, superando las estructuras tradicionales y fomentando relaciones y estructuras más justas y solidarias. Con este proceso se pretende sentar las bases de un nuevo modelo de cuidados. Sobre estas bases, y como primer paso importante, en colaboración con el Ayuntamiento de Zumaia y la Mesa de Prevención, la Fundación Elhuyar ha realizado en los últimos meses un diagnóstico sobre los cuidados y las tareas de cuidado a partir de cuestionarios y otros datos respondidos por la ciudadanía.*

*Este es uno de los resultados del proceso que se está desarrollando en el seno de la Mesa de Prevención y que tienen previsto seguir trabajando con el mismo tema de cara al futuro, con el diseño de un plan de acción. El 22 de octubre, además, se celebró una jornada en la que además de dar a conocer la investigación, se abrió un espacio de reflexión con otros agentes de la localidad.*










# Diagnostikoaren ondorioak

Herri mailako errealitatea ahalik eta era zehatzenean ezagutzeko, hainbat informazio iturri baliatu dituzte, hala nola, datu estatistikoak edota Zumaiako udal zerbitzu ezberdinetako partaidetza datuak. Gainera, informazio zuzena ere bildu dute, eta, herritarren ekarpena jaso dute galdetegi bidez. Guztira 380 zumaiarrek erantzun zuten galdetegia. Hona hemen ondorio nagusiak:

## 1. Zumaia zahartzen ari da

Zumaia zahartzen ari da: 65 urtetik gorako gero eta biztanle gehiago ditu eta etorkizunean ere joera horri eutsiko dio. Biztanle horien artean gehiengoa emakumezkoa da (eta izango da etorkizunean ere), bizi-itxaropen handiagoa dutelako.

*Zumaia envejece: cada vez tiene más habitantes mayores de 65 años y seguirá manteniendo esta tendencia en el futuro. La mayoría de esta población es (y seguirá siendo) femenina por su mayor esperanza de vida.*

## 2. Zaintza lanak prekarizatuak eta feminizatuak dira

Egun indarrean dagoen familia nuklearraren ereduak bultzatuta, eta genero rolek guztiz baldintzatuta, zaintza-lanak emakumeei esleitzen zaizkie. Emakumezko gehienek, gainera, lana, zaintza eta bizitza pertsonala kontziliatzeko arazoak dituzte: aisialdirako, beren buruaren zaintzarako, kirola egiteko edota gozamenerako tarterik gabe bizi dira askotan.

*Impulsados por el modelo de familia nuclear actualmente vigente, y totalmente condicionados por los roles de género, las tareas de cuidado se asignan a las mujeres. La mayoría de las mujeres, además, tienen problemas para conciliar el trabajo, el cuidado y la vida personal: a menudo viven sin margen para el ocio, el autocuidado, la práctica deportiva o el disfrute.*

## 3. Feminizatutako lanbideetan soldata arrakala handia dago

Feminizatutako lanetan (zaintza-lanak, kasu) soldatak beste arlo batzuetakoak baino askoz baxuagoak dira. Pentsioetan ere urteetan pairatutako egoera horrek eragina du. Hortaz, prekarizazio-maila altua jasaten dute Zumaiako emakumeek beren lanpostuetan. Zumaian baliabide ekonomiko faltagatiko zaurgarritasun egoera okerrenak pairatzen dituztenak emakume gazteak (35 eta 44 urte bitartekoak) eta adinekoak (65 urtetik gorakoak) dira.

*En los trabajos feminizados, como el cuidado, los salarios son mucho más bajos que en otros ámbitos. En las pensiones también influye esta situación sufrida durante años. Por tanto, las mujeres de Zumaia sufren un alto grado de precarización en sus puestos de trabajo. En Zumaia las que sufren peores situaciones de vulnerabilidad por falta de recursos económicos son las mujeres jóvenes (entre 35 y 44 años) y las personas mayores (mayores de 65 años).*

## 4. Jatorri migratzaileko herritarrek zapalkuntza-egoerak bizi dituzte

Migrazio mugimenduek dakarten testuinguru soziopolitiko berriari arreta jartzea beharrezkoa da. Izan ere, zaintzaren feminizazioak dakarren prekarietate egoera askoz handiagoa eta sakonagoa da emakume migratuen kasuan, horiek zaurgarritasun egoera larrietan bizirautera kondenatzen dituelarik.

Bestalde, jatorri askotariko pertsonak Euskal Herriko antolaketa ekonomiko, sozial eta politikoan gizarteratzeko eta berdintasunean oinarrituriko elkarbizitza sustatzeko beharra dagoela ondorioztatu da. Izan ere, egungo jaiotza kopuruak ez dira nahikoa sistema sostengatzeko.

*Es necesario prestar atención al nuevo contexto sociopolítico que suponen los movimientos migratorios. De hecho, la situación de precariedad que supone la feminización del cuidado es mucho mayor y más profunda en el caso de las mujeres migradas, a las que condena a sobrevivir en situaciones graves de vulnerabilidad.*

*Por otra parte, se ha llegado a la conclusión de la necesidad de socializar a las personas de origen diverso en la organización económica, social y política del País Vasco y promover una convivencia basada en la igualdad. De hecho, las cifras actuales de nacimientos no son suficientes para sustentar el sistema.*

## 5. Prekarizazioa, osasun mentala kaltetzearen erantzule

Datuek erakusten dutenaren arabera, jatorria, kaudimen ekonomikoa eta generoa prekarietatearen baldintzatzaile argiak dira; gero eta egoera ekonomiko prekarioagoan bizi, orduan eta aukera gehiago dituzte Zumaiako herritarrek osasun mentala kaltetu dezaketen arrisku egoerak jasateko (eta, horien ondorioz, beste hainbat neurriren artean, psikofarmakoak

kontsumitu behar izateko).

*Los datos muestran que el origen, la solvencia económica y el género son claros condicionantes de la precariedad, y que a medida que se vive en una situación económica cada vez más precaria, la población de Zumaia tiene más posibilidades de sufrir situaciones de riesgo que puedan afectar a su salud mental (y, como consecuencia de ellas, entre otras medidas, el consumo de psicofármacos).*

## 6. Zaintza-zerbitzu publikoen erantzun-ahalmenak ez die jendartearen beharrei erantzuten

Mendekotasun egoeraren bat bizi duten herritarrak zaintzeko zerbitzuen beharra handia da Zumaian, baina familiak, orokorrean, behar horiei modu pribatuan erantzuna ematera behartuta sentitzen dira, etxean, kasu gehienetan. Erabaki horren atzean dauden arrazoiak anitzak dira: zerbitzu publikoen gabeziak (plaza falta, baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea) edota erantzun-denbora luzeak; mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza lanak eremu pribatuan "konpondu" beharreko egoerak direnaren bisioa gailentzea oraindik (emakumezkoek, kasu gehienetan, familia testuinguruan, etxean, zaintza-lan horiek beren gain hartuta); zenbait herritarren kasuan, zaintza-zerbitzu asistentzialistekiko jarrera kritikoa…

*La necesidad de servicios de atención a la población en situación de dependencia es importante en Zumaia, pero en general las familias se sienten obligadas a dar una respuesta privada a estas necesidades, en la mayoría de los casos en casa. Las razones que subyacen en esta decisión son múltiples: las carencias de los servicios públicos (falta de plazas, insuficiencia de recursos económicos) o los largos tiempos de respuesta; que el cuidado de las personas en situación de dependencia siga imponiendo la visión de lo que son situaciones "a resolver" en el ámbito privado (las mujeres, en la mayoría de los casos, en el contexto familiar, en el hogar, asumiendo estas tareas de cuidado); en algunos casos, la actitud crítica hacia los servicios asistencialistas de cuidado…*

## 7. Hautatu gabeko bakardadeari erantzun behar zaio, zaurgarritasun eragilea den heinean

Familia-eredu tradizionala deseraikitzen ari den une honetan, bizikidetza-unitate anitzak, filiazio familiar zehatz baten araberakoak ez direnak, gero eta ohikoagoak dira. Gauzak horrela, bakardadea ez da fenomeno kezkagarria bere horretan, desiratua ez den kasuetan soilik, baizik.

Hori horrela, hautatu gabeko bakardadea gero eta fenomeno ohikoagoa da Zumaian. Emakumezko gazteenak dira bakarrik sentitzen direla baieztatzen duten gehienak. Egoera zaurgarrienak eta arrisku egoera larrienak, ordea, adin gehien duten herritarrek pairatzen dituzte. Horiei erantzuteko zerbitzuak egon badaude ere, ez dira nahikoak.

*En un momento de deconstrucción del modelo familiar tradicional, las unidades de convivencia múltiples, que no dependen de una filiación familiar concreta, son cada vez más frecuentes. Así las cosas, la soledad no es un fenómeno preocupante en sí mismo, sino sólo en los casos en que no es deseada.*

*Así, la soledad no seleccionada es un fenómeno cada vez más frecuente en Zumaia. Las mujeres más jóvenes son la mayoría de las que afirman sentirse solas. Las situaciones más vulnerables y de riesgo más graves, sin embargo, las sufren los ciudadanos de más edad. Aunque hay servicios para atenderlos, no son suficientes.*

## 8. Zumaiako irisgarritasuna hobetzen jarraitu behar da

Irisgarritasun arazoak planteatzen dituzten kale eta eraikinak daude Zumaian. Horiek identifikatuta daude eta beharrezkoa da erronka horiei apurka aurre egitea desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen beharrak aintzat hartzeko, horiek zaintzeko eta abegikorra den espazio fisiko bat bermatzeko.

Egungo arazoak konpontzeaz gain, beharrezkoa da aurrerantzean egingo diren obretan elementu hau guztiz kontutan hartzea, baita herrian problematika horiek bizi dituzten pertsonen behar eta iritziak aintzat hartzea ere.

*Hay calles y edificios en Zumaia que plantean problemas de accesibilidad. Estos están identificados y es necesario afrontar estos retos de forma progresiva para atender las necesidades de las personas con discapacidad física, cuidarlas y garantizar un espacio físico acogedor. Además de resolver los problemas actuales, es necesario tener plenamente en cuenta este elemento en las futuras obras, así como las necesidades y opiniones de las personas que viven estas problemáticas en el pueblo.*



# Zaintza sistema berri bat eraiki beharra dago

Zortzi ondorio horiek erronka bat jartzen dute mahaigainean. Zaintza erdigunera ekarri behar da, jendartea eta instituzioak saretuta eta norabide berean lanean jarrita. Finean, erronka nagusia zaintza-sistema berri bat artikulatzea da, honako zutabeen gainean.

*Estas ocho conclusiones ponen un reto sobre la mesa. Hay que traer los cuidados al centro, con la sociedad y las instituciones enredadas y trabajando en la misma dirección. En definitiva, el gran reto es articular un nuevo sistema de cuidados sobre los siguientes pilares.*

## Erantzun kolektiboak eta konprometituak

Modu kolektiboan pentsatu beharra dago, herritar guztien inplikazioa eta protagonismoa bilatuz eta erraztuz, pertsonen bizi baldintzak hobetzeko eta gizarte inklusiboagoa eta kohesio gehiagokoa eraikitzeko, horrela eraldaketa soziala posible eginez. Ekintzara pasa behar gara, komunitatea ahaldunduz. Horretarako, norbanako kontziente, arduratsu eta konprometituen erantzun kolektiboak beharrezkoak dira, eta orain artean izandako harremanak birpentsatzea, egungo pribilegio/subordinazio sistema, botere harremanak eta kulturen ikuskera hegemonikoak gainditzeko.

*Respuestas colectivas y comprometidas. Es necesario pensar de forma colectiva, buscando y facilitando la implicación y protagonismo de toda la ciudadanía para mejorar las condiciones de vida de las personas y construir una sociedad más inclusiva y cohesionada, haciendo posible así la transformación social. Hay que pasar a la acción, empoderando a la comunidad. Para ello, son necesarias respuestas colectivas de individuos conscientes, responsables y comprometidos y repensar las relaciones mantenidas hasta ahora para superar el actual sistema de privilegios/subordinación, las relaciones de poder y las concepciones hegemónicas de las culturas.*



## Udalari protagonismo handiagoa

Gaur egungo antolaketa administratiboa birpentsatzea eta zaintza lanen inguruko administrazioen konpetentziak berrantolatu behar dira, udalei, herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa izanik, protagonismo handiagoak eskainiz. Instituzio publikoak behar dute izan zaintza eta ongizatearen eremuko agente guztiak (zerbitzu publikoak, zerbitzu pribatuak eta merkatua, hirugarren sektorea, komunitatea, familia) kudeatu eta koordinatzen dituena.

*Mayor protagonismo al Ayuntamiento. Es necesario repensar la actual organización administrativa y reordenar las competencias de las administraciones en materia de cuidados, dando mayor protagonismo a los ayuntamientos como institución más cercana a la ciudadanía. Las instituciones públicas deben ser las que gestionen y coordinen a todos los agentes del ámbito de la vigilancia y el bienestar (servicios públicos, servicios privados y mercado, tercer sector, comunidad, familia).*

## Baliabide eta zerbitzu publikoak indartzea

Beharrezkoa da zaintzara bideratutako baliabideak (ekonomikoak, pertsonalak) handitzea; zaintza zerbitzu-publiko berri gehiago eskaintzea; eta zaintzaileei lan-baldintza duinak bermatzea.

*Reforzar y ampliar los recursos y servicios públicos. Es necesario aumentar los recursos destinados al cuidado (económicos, personales); ofrecer más nuevos servicios públicos de cuidados; y garantizar unas condiciones laborales dignas a los cuidadores.*








### Prebentzio Mahaia, askotariko eragileen topaleku

Zumaiako Prebentzio Mahaia, Zumaiako herritarrekin lan egiten duten herriko hainbat erakunde elkartzen dituen sarea da. Erakundeen artean helburu komunak eta bateratuak definitzeko eta herritarren prebentzioan eragin dezaketen programak aurrera eramateko elkartzen da Mahaia.

2010. urtetik dago abian, eta bide horretan eboluzio handia izan du. Gai mordoa jorratu dituzte bertan eta askotariko partaideak izan ditu. Gaur egun, bertan parte hartzen duten eragileek elkar hobeto ezagutu, koordinatu eta indarrak batzen dituzte, bakoitzak bere eremutik arrisku adierazleak identifikatuta helburu komunak eta bateratuak definitzeko eta herritarren prebentzioan eragin dezaketen programak aurrera eramateko.

Horiek horrela, eta hainbat esparrutan jasotako kezka eta interesak identifikatuta, Prebentzio Mahaiak zaintzaren gaiari lotutako erronka nagusienak identifikatu eta lantzeari ekin zion 2023an. Koordinazio mahaia eratu ondotik, hainbat saio zabal egin zituzten. Gizarte zerbitzuetako, osasun arloko eta nagusien egoitzetako ordezkari eta langileak,, herriko eskoletako ordezkariak, zaintza lanetan zein boluntario moduan aritzen diren herritarrak, Nagusien Mahaiko kideak, mugimendu eta talde feministetako kideak... ari dira parte hartzen, baita udal ordezkari eta teknikariak ere.

*La Mesa de Prevención de Zumaia es una red que agrupa a diferentes entidades locales que trabajan junto a vecinos/as de Zumaia. La Mesa se reúne para definir objetivos comunes y conjuntos entre las instituciones y llevar a cabo programas que puedan incidir en la prevención de la ciudadanía.*

*La mesa está marcha desde el año 2010 y durante este tiempo ha evolucionado mucho. Han abordado numerosos temas y han contado con un amplio abanico de participantes. En la actualidad, los agentes que participan en el mismo se conocen, se coordinan y aúnan fuerzas, identificando indicadores de riesgo desde sus respectivos ámbitos para definir objetivos comunes y conjuntos y llevar a cabo programas que puedan incidir en la prevención de la ciudadanía.*

*Por ello, e identificando las inquietudes e intereses recogidos en diferentes ámbitos, la Mesa de Prevención inició en 2023 la identificación y abordaje de los principales retos relacionados con el tema de la vigilancia. Tras la constitución de la mesa de coordinación, se llevaron a cabo numerosas sesiones. Están participando representantes y trabajadoras de los servicios sociales, del ámbito sanitario y de las residencias de mayores, representantes de las escuelas*

*del pueblo, ciudadanos que trabajan tanto en el cuidado como en el voluntariado, miembros de la Mesa de Mayores, miembros de movimientos y grupos feministas... así como representantes municipales y técnicas.*

## Zaintzaren gaia pil-pilean

Asko dira gure inguruan zaintzaren gaia lantzen ari diren eragileak. Pandemia aurretik arazoa mahai-gainean bazegoen ere, pandemiak are ikusgarriagoa egin zuen zaintzaren gaiari heltzeko beharra. Hori horrela, gai honen inguruan askotariko ekimenak sortzen ari dira.

Zumaian eta eskualdean bertan, Prebentzio Mahaia eta Udala egiten ari diren lanketaz gain, beste bi ekimen daude martxan: Emakumeon* Etxeak, Malen Etxeak eta Mugimendu Feministak bultzatutako Zaintzen duen Zumaia irudikatzen ari gara prozesua, batetik; eta Urola Kostako Udal Elkartea egiten ari den diagnostikoa, bestetik. Zumaiako Udala zein Prebentzio Mahaia prozesu horiekin koordinazioan dago prozesu hau hasi zuenetik, eta hala jarraituko du hurrengo pausoak emateko ere, diagnostikoaren ondorengo faseetan pausoak elkarrekin emateko.

*Son muchos los agentes que están trabajando el tema del cuidado en nuestro entorno. Aunque el problema ya estaba sobre la mesa antes de la pandemia, ésta hizo aún más visible la necesidad de abordar el tema del cuidado. En este sentido, se están generando iniciativas muy diversas en torno a este tema.*



### Zaintza neurtu, neurriak hartzeko:

BLABLABLA

*BLABLABLA*



# Elkarlan Gunea martxan

Ekonomia sozial eta eraldatzailea oinarri, lan arloko proiektuak zein ekimen sozialak bultzatuko dituzte Elkarlan Gunetik. Alberga elkarteak kudeatuko du espazioa, Udalarekin elkarlanean.

2022an zehar garatu zen ZKOOP egitasmoak eman ditu bere fruituak, eta dagoeneko inauguratu dute Elkarlan Gunea, lan arloko proiektuen zein ekimen sozialen topalekua. Hogarreko lehenengo solairua (Eusebio Gurrutxaga plazan) atondu dute, eta astelehenetik ostiralera 09:00etatik 20:00etara bitartean erabili ahal izango dute erabiltzaileek. Aurrez aurreko arretarako harrera ordutegi bat ere zehaztu dute, eta dinamizatzaile bat egongo da bertan zalantzak argitzeko zein aholkularitza emateko.

Alberga elkarteak kudeatuko du espazioa, Zumaiako Udalarekin elkarlanean, eta bi funtzio nagusi garatuko dituzte bertan: batetik, lan-arloko proiektuak eta ekintzailetza soziala garatzeko coworking erako gune bat izango da, norbanakoentzat zein taldeentzat; eta, bestetik, proiektu kolektibo eta sozialak sustatzeko erreferentziazko gunea izango da. Hiru gune ditu Elkarlan Guneak: geletako bat, lan egiteko egokitu dute; sarrerako gunea ere izango dute, office moduan erabiltzeko; hirugarren gunea erabilera anitzekoa izango da, bilerak eta formazioak egiteko, besteak beste.

Honakoak dira Elkarlan Gunean landu nahi dituzten ildoak: ekonomia sozialean oinarritutako proiektuak abian jartzeko espazioa eskaintzea; ekintzailetza komunitarioari bide eman eta herrian sustraituko diren ekimenak martxan jartzea; eragileen arteko sareak indartzea; ikuspegi publiko-komunitarioa eta herri izaera lantzea; eta, ekimen kolektiboak martxan jartzeko eta eragiletza aktibatzeko klabe eta elementuen gainean gogoeta sustatzea. Helburu horiei erantzuteko, Elkarlan Gunea koordinatzeaz gain, Alberga elkarteak bestelako ekimenak ere bultzatuko ditu: hitzaldiak eskainiko dituzte, baita formazio saio espezifikoak ere. Gainera, aurreratu dutenez, 2023/2024 ikasturtean hiru gai konkretu landuko dituzte: energia, zaintza eta elikadura.

*El proyecto ZKOOP, que se desarrolló a*



*lo largo de 2022, ha dado sus frutos y ya se ha inaugurado el Elkarlan Gunea, lugar de encuentro de proyectos laborales e iniciativas sociales. Se ha habilitado la primera planta de Hogar (plaza Eusebio Gurrutxaga), que se podrá utilizar de lunes a viernes entre las 09:00 y las 20:00 horas. También se ha definido un horario de atención presencial.*

*El espacio será gestionado por la asociación Alberga, en colaboración con el Ayuntamiento de Zumaia, y en él se desarrollarán dos funciones principales: por un lado, será un espacio coworking para el desarrollo de proyectos laborales y de emprendimiento social, tanto individuales como colectivos, y por otro, será un espacio de referencia para la promoción de proyectos colectivos y sociales. Elkarlan Gunea contará con tres espacios: una de las aulas ha sido acondicionada para trabajar, un espacio de acceso para su uso como office, un tercer espacio multiuso para reuniones y formaciones, entre otros.*

*Estos son los objetivos principales: ofrecer un espacio para la puesta en marcha de proyectos basados en la economía social; dar cauce al emprendimiento comunitario y poner en marcha iniciativas que arraiguen en el pueblo; fortalecer las redes entre agentes; trabajar la visión público-comunitaria y el carácter de país; y, promover la reflexión sobre claves y elementos para poner en marcha iniciativas colectivas y activar el agente. Para dar respuesta a estos objetivos, además de coordinar el Elkarlan Gunea, la asociación Alberga impulsará otro tipo de iniciativas: ofrecerán charlas y sesiones formativas específicas. Además, según han adelantado, en el curso 2023/2024 se abordarán tres temas concretos: energía, cuidado y alimentación.*

2022/03

**ZKOOP jardunaldia**
*Jornada de ZKOOP*

2022/04

**Formakunza OlatuKoopen eskutik**
*Redacción del proyecto del*

2023/01

**Alberga elkartearen sorrera**
*Redacción del proyecto del museo y solicitud de subvención*







2023

**Hitzarmena Udala-Alberga**
*Jornada de ZKOOP*

2023

**Elkarte/elkarlangunearen aurkezpena**
*Redacción del proyecto del*

2022

**Elkarlangunea martxan**
*Redacción del proyecto del museo y solicitud de subvención*









## Guztientzat zabalik, denbora-bankua oinarri

Elkarlan Gunea herritar eta proiektu guztientzat zabalik dago, hala nola: ekintzaileak, freelanceak, autonomoak, GKEak, elkarteak, ikasleak, eratutako enpresak... Oro har enpresa-ideiaren bat edo gizarte-ideiaren bat duten eta proiektu baten bidez gauzatu nahi duten pertsona fisiko guztiak daude proiektura gonbidatuta, eta halaber, proiektu estrategiko sortu berri bat abian jarri nahi duten enpresa guztiak.

Baldintza bakar bat bete beharko dute partaideek: denbora-bankuan parte hartzea. Horrek esan nahi du lankidetza eta gizarteari laguntzea funtsezko baldintzak izango direla parte hartzen duten proiektu guztientzat. Adibidez, autonomo batek diru-kontuak eramaten badaki, elkarte bati lagundu diezaioke haren diru-kontuak eramaten; edota, ikus-entzunezkoetan aritzen bada, egin dezake ekarpena Alberga elkarteak sustatzen dituen ekimenen zabalpenean. Horrenbestez, interkooperazioa eta trukea izango dira gune honen zutabeak.

Este nuevo espacio está abierto a toda la ciudadanía y a proyectos de emprendedores/as, freelances, autónomos/as, ONGs, asociaciones, estudiantes, empresas constituidas... Están invitadas al proyecto todas aquellas personas físicas que tengan una idea empresarial o social en general y quieran llevarla a cabo a través de un proyecto, así como todas aquellas empresas y asociaciones que quieran poner en marcha un proyecto estratégico de nueva creación.

Las participantes deberán cumplir un único requisito: participar en el banco de tiempo. Esto significa que la cooperación y el apoyo a la sociedad serán condiciones fundamentales para todos los proyectos en los que participen. Por ejemplo, si un autónomo sabe llevar cuentas, puede ayudar a una asociación a llevar sus cuentas o, si se dedica al audiovisual, puede contribuir a la difusión de las iniciativas que promueve Alberga. Por lo tanto, la in-



# Elikagaiak bertan ekoizteko

Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak 'Amillubi: Lurra Taupaka' izeneko proiektua abiarazi du beste eragile askoren eskutik helduta. Asmo handiko plan honen epe laburreko helburua da Zestoako Iraeta auzoko Amillubi baserria eta haren inguruko lurrak erostea, ondasun kolektibo bihurtzeko eta "lurra espekulaziotik eta artifizializaziotik babesteko, eta lehen sektorea zein elikadura-sistema indartzeko".






Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak 'Amillubi: Lurra Taupaka' izeneko proiektua abiarazi du beste eragile askoren eskutik helduta. Asmo handiko plan honen epe laburreko helburua da Iraeta auzoko (Zestoa) Amillubi baserria eta haren inguruko lurrak erostea, ondasun kolektibo bihurtzeko, eta lehen sektorea zein elikadura-sistema indartzeko.

Ekimenaren helburua da nekazariek beren lurrak dituztela bermatzea, baita herritarrei bertako elikagaiak eskuratzeko eta, horrela, elikadura-sistemaren gurpila biratzeko aukera emanez.

Amillubik Euskal Herrian nekazaritza herrikoi eta iraunkorra eraikitzen parte hartu nahi du, iparraldeko Lurzaindiaren lorratzari jarrituz. Horretarako, lurrarekin errespetuzkoak diren laborantza proiektuak jarriko dituzte martxan.

*La asociación a favor de la agricultura ecológica de Gipuzkoa, Biolur, ha puesto en marcha el proyecto 'Amillubi: Lurra Taupaka' de la mano de otros muchos agentes. El objetivo a corto plazo de este ambicioso plan es la compra del caserío Amillubi del barrio de Iraeta (Zestoa) y de los terrenos que lo rodean para convertirlo en un bien colectivo y potenciar tanto el sector primario como el sistema alimentario.*

*El objetivo de la iniciativa es garantizar que los agricultores tengan sus tierras, así como permitir a los ciudadanos acceder a los alimentos autóctonos y así girar la rueda del sistema alimentario.*

*Amillubi quiere participar en la construcción de una agricultura popular y sostenible en Euskal Herria, poniéndose a la estela de Lurzaindia del norte. Para ello, pondrán en marcha proyectos de cultivo respetuosos con la tierra.*



**Proiektuaren helburu nagusia Amillubi ondasun kolektibo bilakatzea da, eta horren bitartez:**

*El objetivo principal del proyecto es convertir Amillubi en un bien colectivo a través del cual:*

01 Herritarrek bertako eta osasuntsuak diren elikagaiak eskuratzea

*Acceso de la población a alimentos autóctonos y saludables*

02 Nekazariek lurrak modu duinean lantzeko aukera izatea

*Que los agricultores puedan cultivar las tierras de forma digna*

03 Lurra espekulaziotik zein artifizializaziotik babestea

*Proteger la tierra tanto de la especulación como de la artificialización*

04 Lehen sektorea eta gure elikadura sistema indartzea

*Fortalecer el sector primario y nuestro sistema alimentario*




# Abillubi proiektua

1. **50.000 metro kuadro** baso naturala
2. **25.000 metro kuadro** erriberako lurra; baratzea edo soroa
3. **15.000 metro kuadro** aldapan dagoen belardia bordarekin
4. **514 metro kuadro** hiru solairuko etxebizita
5. **Urola ibaiaren meandroa.** Ura eskura izatea bermatzen du

## Amillubi, leku estrategikoa

Amillubi 5 hektarea-baso eta 4 hektarea belardi naturala eta nekazaritzarako lur sailaz osatzen da. Balio agroekologiko handiko eremua da, eta estrategikoa kokapen aldetik, bereziki hiru arrazoirengatik:

**EZAUGARRIAK**

Amillubi baserria Urola ibaiaren meandro naturalean dago, Zestoa herriko Iraeta auzoan. Meandroan egoteak krisi klimatikoaren garaiotan ura eskura izatea bermatzen digu eta lurraren emankortasuna indartzen du. Horregatik dira Amillubiko lurrak baratzagintzarako, frutagintzarako eta lurraren laborantzarako egokiak.

**MEANDROA**

Amillubiko lurrak entitate-publikoaren jabetza duten 26 hektareako nekazaritza lur gisa kalifikatuta dauden eremu zabal baten alboan daude, etorkizunera begira proiektua hedatzeko aukera paregabea eskainiz.

**KOKAPENA**

ogistika antolatzeko leku egokian dagoelako. Bai Gipuzkoako kostaldeari begira, bai barrualdeko eskualdeei begira elikagaien banaketarako bere kokapena lagungarria egiten du.

*Amillubi se compone de 5 hectáreas de bosque y 4 hectáreas de pradera natural y terreno agrícola. Se trata de una zona de alto valor agroecológico y estratégica desde el punto de vista de su ubicación, especialmente por tres razones:*

*CARACTERÍSTICAS*

*El caserío Amillubi se encuentra en el meandro natural del río Urola, en el barrio Iraeta de la localidad de Zestoa. Su presencia en el meandro nos garantiza el acceso al agua en estos tiempos de crisis climática y refuerza la fertilidad de la tierra. Por eso los terrenos de Amillubi son aptos para la horticultura, la fruticultura y el cultivo de la tierra.*

*MEANDRO*

*Los terrenos de Amillubi se encuentran junto a un extenso espacio calificado como suelo agrícola de 26 hectáreas propiedad de la entidad pública, ofreciendo una oportunidad única de expansión del proyecto de cara al futuro.*

*UBICACIÓN*

*Porque está en el lugar adecuado para organizar la logística. Tanto de cara a la costa guipuzcoana como de cara a las comarcas del interior contribuye a su ubicación en el reparto de alimentos.*

## Babestu metro koadro bat

Proiektua egi bihurtzeko 390.000 euroko inbertsioa egin beharko du Biolurrek, baserria eta lurrak erosi, eta zaharberritu eta atontzeko. Lankidetza sare handia beharko du horretarako, eta dagoeneko martxan daude. Asko dira sarera bildu direnak, tartean Zumaiako Udala. Hori horrela, Zumaiak honako ekarpen ekonomikoa egingo dio ekimenari hurrengo urteotan: 2023. urtean 4.000 euro jarri ditu, 12.000 euro jarriko ditu 2024an, eta beste 12.000 euro 2025ean (guztira 28.000 euro).

Herritarrek ere badute proiektua babesteko aukera, eta, horretarako, crowfunding kanpaina abiarazi dute 150.000 euro bildu eta lehen ordainketak egiteko.

*La ejecución del proyecto requerirá una inversión de 390.000 euros para la adquisición, rehabilitación y acondicionamiento del caserío y de los terrenos. Necesitará para ello una gran red de colaboración, que ya está en marcha. Son muchos los que se han unido a la red, entre ellos el Ayuntamiento de Zumaia. Así, Zumaia aportará 4.000 euros en 2023, 12.000 euros en 2024 y 12.000 euros en 2025 (un total de 28.000 euros).*

*La ciudadanía también tiene la oportunidad de apoyar el proyecto y para ello han lanzado una campaña de crowfunding para recaudar 150.000 euros y realizar los primeros pagos.*

**Babestu proiektua: QR-a jarri**








## Aintzane Usandizagak irabazi du Julene Azpeitia ipuin lehiaketa

Aintzane Usandizaga, Igor Mercado eta Maddi Altuna izan dira 36. Julene Azpeitia ipuin lehiaketako saridunak. Azken lehiaketa honetara 56 lan aurkeztu dira, horietatik hiru zumaiarrek idatziak. Lehiaketaren sorreratik hona saritutako ipuin guztiak modu digitalean eskuragarri daude zumaia.eus webgunean.

***Aintzane Usandizaga, ganadora del concurso Julene Azpeitia.*** *Los y las premiadas en la 36ª edición han sido Aintzane Usandizaga, Igor Mercado y Maddi Altuna. A esta última edición se han presentado 56 trabajos, tres de ellos escritos por zumaiarras. Los cuentos premiados desde la creación del concurso están disponibles digitalmente en zumaia.eus.*




## Indarkeria matxistako 11 kasu 2023an

Gizarte zerbitzuetan 4 kasu berri artatu dira, eta aurreko urteetatik datozen beste 9 kasuren jarraipena egin da; Emakumeon* Etxean, berriz, 7 emakume izan dira indarkeria matxista dela-eta lagundu direnak. Udalak nabarmendu nahi du gizarte zerbitzuen arreta jasotzeko edota Emakumeon* Etxeko laguntza juridiko edo psikologikoaz baliatzeko ez dela beharrezkoa salaketa formala jartzea.

***11 casos de violencia machista en 2023.*** *En los servicios sociales se han atendido 4 nuevos casos y se ha realizado el seguimiento de otros 9 casos procedentes de años anteriores, mientras que en Emakumeon* Etxea han sido 7 las mujeres que han sido atendidas por violencia machista. El Ayuntamiento quiere destacar que para recibir la atención de los ser-*



## Erosketa bonoak, tokiko komertzioa indartzeko

Neguko oporren bezperetan ErrotaHerria bonoak jaulki dituzte Udalak eta Gertu elkarteak. 30 euroren truke 40 euroko balioa duten erosketa txartelak jarri dira herritarren esku, gabon sasoi osoan erabiltzeko.

***Bonos de compra para reforzar el comercio local.*** *En vísperas de las vacaciones de invierno el Ayuntamiento y la asociación Gertu han emitido bonos ErrotaHerria. Los y las zumaiarras han adquirido bonos de compra valorados en 40 euros por 30 euros para su uso durante toda la temporada navideña.*




## Merkataritza lokalak berreskuratzeko

Zumaiako Udalak merkataritza lokalak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko dirulaguntzak jarri ditu martxan lehen aldiz. Urtebeteko iraupeneko dirulaguntzak dira, eta, gehienez ere, 250 euro ordainduko dira hilabetean. Helburua da merkataritza jarduera eta ekimen berriak sustatzea, eremu horiei bizia emateko.

***Recuperación de locales comerciales.*** *El Ayuntamiento de Zumaia ha puesto en marcha por primera vez subvenciones para la recuperación de locales comerciales a través de nuevos emprendedores. Se trata de subvenciones de un año de duración por un importe máximo de 250 euros mensuales. El objetivo es fomentar nuevas actividades e iniciativas comerciales que den vida al pueblo.*

---




## 148 zumaiarrek jaso dute GLLa

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak premia puntualei erantzutea du helburu; batez ere, etxebizitzako gastuei (alokairua, hipoteka, argia, ura, gasa…). Aurten 148 zumaiarrek jaso dute laguntza. Beharra baduzu, jarri harremanetan Gizarte Zerbitzuekin: 943 86 22 00 / 632 44 22 56 edo brankaharrera@ zumaia.eus.

***148 zumaiarras reciben la AES.*** *La Ayuda de Emergencia Social tiene como objetivo dar respuesta a necesidades puntuales, especialmente a los gastos de vivienda (alquiler, hipoteca, luz, agua, gas…). Este año han recibido la ayuda 148 zumaiarras.  En caso de necesidad, póngase en contacto con los Servicios Sociales: 943862200 / 632442256 o brankaharrera@zumaia.eus.*

---



## Harrera etorri berriei

Azaroaren amaieran Zumaiara etorri berriei ongietorria egiteko ekitaldia egin zuten. Udal zerbitzuak, herria bera eta elkar ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Harrera Gida bost hizkuntzatan dago eskuragarri, zumaia.eus webgunean eta udaletxeko HAZen.

***Bienvenida a los y las nuevas zumaiarras.*** *A finales de noviembre el Ayuntamiento celebró un acto de bienvenida en el Ayuntamiento. Los y las asistentes tuvieron la oportunidad de conocer los servicios municipales, la propia localidad y conocerse entre ellos/as. La Guía de Acogida está disponible en zumaia.eus y en el ayuntamiento.*






## Otsailean estreinatuko dute 'Olagarrua' antzezlana

Olatz Beobide, Nerea Arriola eta Maitane Perez aktore eta sortzaileak "euskalduntasunaren, erruaren, euskal identitatearen, eta euskal irriaren inguruko" antzezlan obra sortzen ari dira, Udalbiltzak bultzatutako Geuretik Sortuak proiektuaren barruan. Uda hasiera partean Zumaian egon ziren, eta, hainbat herritarrekin banaka biltzeaz gain, talde dinamikak egin zituzten obra sortzeko.

***La obra de teatro "Olagarrua" se estrenará en febrero.*** *Las actrices y creadoras Olatz Beobide, Nerea Arriola y Maitane Pérez están creando una obra de teatro "sobre lo vasco, la culpa, la identidad vasca", dentro del proyecto Geuretik Sortuak impulsado por Udalbiltza. Durante el inicio del verano estuvieron en Zumaia, y además de reunirse individualmente con varios/as vecinos/as, realizaron dinámicas de grupo para crear la obra.*

---

## Mariri errestaurazio lanak

---

## Sormen beka, Migel Gutierrezentzat

Gutierrezek sei abesti inguruko EPa sortuko du datozen hilabeteotan, herriko zenbait musikari eta sortzailerekin batera. Basoa.wav izena du aurkeztu duen proiektuak, eta 8.000 euroko dirulaguntza jasoko du proiektua garatzeko. Bigarren aldiz jarri da martxan sormen deialdi hau, eta aurten hiru proiektu aurkeztu dituzte deialdira.

***Beca para la creación, para Migel Gutierrez.*** Gutierrez creará un EP de alrededor de seis canciones en los próximos meses, junto a varios/as músicos y creadores/as de la localidad. El proyecto presentado, denominado Basoa.wav, recibirá una subvención de 8.000 euros para su desarrollo. Es la segunda vez que se pone en marcha esta convocatoria creativa, a la que este año se han presentado tres proyectos.



## Bizipen tailerrak, gurasoen topaleku

Bizipen tailerretan guraso moduan hobeto sentitzeko, soluzioak bilatzeko, hausnartzeko, eta, kezka eta ideiak partekatzeko aukera izan dute Zumaiako 0 eta 6 urte bitarteko haurren gurasoek, Jon Urdineta eta Itziar Rosado psikomotrizisten eskutik. Gizarte Zerbitzuek urtero eskaintzen dute bizipenetan oinarritutako programa hau.

***Talleres de vivencias, lugar de encuentro de padres y madres.*** *En los talleres de vivencias, padres y madres de niños/as de 0 a 6 años de Zumaia, han tenido la oportunidad de hacer ejercicios para sentirse mejor como padres y madres, buscar soluciones, reflexionar, compartir inquietudes e ideas. Los Servicios Sociales ofrecen cada año este programa basado en las vivencias, de la mano de los psicomotricistas Jon Urdineta e Itziar Rosado.*



## 30 lagun, oroimena lantzen

Oroimena lantzeko tailerretan askotariko ariketak egiten dituzte astelehenero Zumaiako 65 urtetik gorako 30 pertsonak, 15eko bi taldetan banatuta. Ordubeteko saioak egiten dituzte dinamizatzaile baten laguntzarekin. Adineko pertsonen bizitza aktiboa eta horien partehartzea sustatzea ditu helburu programa honek.

***30 personas, entrenando la memoria.*** *Divididas en dos grupos de 15, 30 personas mayores de Zumaia realizan ejercicios variados para trabajar la memoria. Hacen sesiones de una hora con la ayuda de una dinamizadora, para mantener una vida activa. Este programa tiene como objetivo promover la vida activa y la participación de las personas mayores.*



## Geoparkeko ordezkariak Caceresen

Euskal Kostaldeko Geoparkeko ordezkariak Villuercas-Ibores-Jara (Caceres, Extremadura) eta Las Loras (Burgos-Palentzia) geoparkeetako kideekin hiru eguneko lan topaketa egin zuten azaroan. Deba, Mutriku eta Zumaiako udaletako alkate eta udal teknikariak izan ziren bertan, besteak beste.

***Representantes del Geoparque en Cáceres.*** *Representantes del Geoparque de la Costa Vasca mantuvieron en noviembre un encuentro de trabajo de tres días con miembros de los geoparques Villuercas-Ibores-Jara (Cáceres, Extremadura) y Las Loras (Burgos-Palencia). Estuvieron presentes alcaldes y técnicos municipales de los ayuntamientos de Deba, Mutriku y Zumaia, entre otros.*



## San Jose berrurbanizatzeko lanak martxan

573.820 euro

San Jose auzoko mendebaldeko sarrera handitzearekin batera, zenbait etxebizitza-blokeetan igogailu eta eskaileren nukleoak egiteko aukera zabalduko dute obra hauek. Gainera, argiteria-, ur- eta saneamendu-sareak berrituko dira.

***En marcha la reurbanización del barrio San José.*** *Además de ampliar la entrada oeste al barrio de San José, estas obras abrirán la posibilidad de realizar núcleos de ascensores y escaleras en algunos bloques de viviendas. Además, se renovarán*



## Ur hornidura sare berria Juan Belmonten

396.340 euro

2023 hasieran zehar, Juan Belmonte kaleko ur hornidura sare osoa berritu zuen Udalak, 308 metro lineal zehazki. Gainera, hartune berriak jarri ziren. Lurrazpiko konponketak egin eta gero, eremu osoa asfaltatu zen.

***Nueva red de abastecimiento de agua en Juan Belmonte.*** *Durante el inicio de 2023, el Ayuntamiento renovó toda la red de abastecimiento de agua de la calle Juan Belmonte, concre-*



## Estazio kalea berrurbanizatzea

225.535€

Estazio kaleko errepidearen egoera hobetzeaz gain, oinezkoei lehentasuna emateko lanak egin dira. Gainera, ibilgailuen abiadura murrizteko neurriak hartu dira, eta bizikletentzako bideari jarraipena eman.

***Reurbanización de la calle Estación.*** *Además de mejorar el estado de la carretera de la calle Estación, se han realizado trabajos para dar prioridad a los peatones. Además, se han adoptado medidas para reducir la velocidad de los vehículos y*



## Eskubaloi pista berria

185.608 euro

Udalak Pulpo eskubaloi elkartearekin batera zehaztu zituen pistaren ezaugarriak, eta, haien eskariz, pista berriak Munduko Eskubaloi Txapelketan erabilitako pistaren material eta ezaugarri berak ditu. Ate berriak ere jarri dira.

***Nueva pista de balonmano.*** *El Ayuntamiento definió junto a la asociación de balonmano Pulpo las características de la pista y, a petición de ellos/as, cuenta con los mismos materiales y características que la pista utilizada en el Mundial de balonmano. También se han colocado nuevas puertas.*



## Asfaltatze kanpaina

157.793,85 euro

Juan Zigaran eta Baltasar Etxabe kaleen arteko eremua, Itzurungo aparkalekua, Amaia plazaren ondoko errepideetako bat, Ardantzako hiribidea, San Telmo kalea (18 eta 22 atarien arteko gunea), Osasun Zentroaren pareko errepidea, eta San Jose kalea (31 eta 33 atarien arteko gunea) asfaltatu zituen Udalak maiatzean eta ekainean.

***Campaña de asfaltado.*** *El Ayuntamiento asfaltó varias zonas de la localidad durante mayo y junio: la zona comprendida entre las calles Juan Zigaran y Baltasar Etxabe, el aparcamiento*

## Herri bideak konpontzea

65.562 euro

Arteaga inguruko herribidea konpondu ondotik, Oikia eta Artadi arteko herri bidea asfaltatu du Udalak. Horrekin lotuta, Zumaia eta Artadi arteko bidea konpondu dadin, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera luzatu du, honakoaren eskumenekoa baita bide hori.

***Reparación de vías públicas.*** *Tras arreglar el casco urbano de la zona de Arteaga, el Ayuntamiento ha asfaltado el vial urbano entre Oikia y Artadi. En este sentido, ha solicitado a la Diputación Foral de Gipuzkoa la reparación del vial entre Zumaia y Artadi, que es de su competencia.*



## Teloi berria Aita Mari zineman

6.858,28 €

Udako atsedenaldi tartean suaren aurkako ezaugarria duen teloi berria jarri da, beste konponketa txiki batzuk egitearekin batera.

***Nuevo telón en el cine Aita Mari.*** *En el tramo de descanso estival se ha instalado el nuevo telón con la característica ignífugo, y también se han realizado otras pequeñas reparaciones.*



## Alai auzuneko espaloiak konpontzea

Alai auzunekoetxebizitzen inguruko urbanizazioak behera egiten du pixkanaka, oinezkoentzako arrisku egoerak sortuz. Egoera konpontzeko, udal brigadak egokitzapenak egin ditu espaloi hauetan.

***Reparación aceras barrio Alai.*** *La urbanización del entorno de las viviendas del barrio de Alai ha ido descendiendo paulatinamente, generando situaciones de riesgo para los peatones. Para solventar la situación, la brigada municipal ha realizado adaptaciones en estas aceras.*




## Espaloietako irisgarritasuna hobetzea

Juan de Zigaran eta Julio Beobide kaleetan zebrabideetara daramaten espaloi zatiak irisgarritasun araudira egokitu ditu udal brigadak, beharrezko malda eta seinaleztapen baldosak jarriz.

***Mejora de la accesibilidad en las aceras.*** *La brigada municipal ha adaptado a la normativa de accesibilidad los tramos de acera que conducen a los pasos de cebra de la caleta Juan de Zigaran y Julio Beobide, colocando las pendientes y baldosas de señalización necesarias.*



## Ur hornidura sarean hobekuntzak

Aita Mariko eta Oikiako ur hornidura sarea hobetzeko lanak egin zituen udal brigadak uda partean. Honekin batera, sarea hobetzeko kaudalimetro berriak jarri dira Oikia auzoan eta Juan Belmonte kalean.

***Mejoras en la red de abastecimiento de agua.*** *La brigada municipal realizó durante el verano las obras de mejora de la red de abastecimiento de agua de Aita Mari y Oikia. Asimismo, se han instalado nuevos caudalímetros para la mejora de la red en el barrio de Oikia y en la calle Juan Belmonte.*



## Herri eskolako estalpea

**Fototekaren webgunea:**
**www.fototeka.zumaia.eus**

# Haur, nerabe eta familientzat lanean

Zumaiako Gizarte Zerbitzuek askotariko babes eta laguntza zerbitzuak eskaintzen dituzte, hala nola: familia aholkularitza, kale heziketa, psikomotrizitatea edota Guraso Eskolak. Zumaiako Udalak eta Gizarte Zerbitzuetako profesional-taldeak babes eta laguntza zerbitzuok baliatzera deitu dituzte herritarrak.

Zumaiako haur eta nerabeen garapen egokia eta tratu ona bultzatzeko zerbitzu ugari ematen dituzte Zumaiako Gizarte Zerbitzuek. Familia elkarbizitzan, egoera pertsonalean, gizarte harremanetan, komunikazioan edota guraso eta heziketa arduran sortzen diren kezka eta zailtasunak aztertu eta laguntza ematea dute xede. Horretarako, informazioa, orientazioa, gertatzen dena ulertzeko eta kontzientzia hartzeko lanketak, edota ohitura aldaketak bultzatzeko trebakuntza eskaintzen dira, besteak beste.

Gizarte langileek, hezitzaileek, psikologoek, psikomotrizistek eta bestelako profesionalek koordinatzen eta eskaintzen dituzte zerbitzu guztiak, eta lanketa familiako kideen eta profesionalen artean sortzen den laguntza harremanean oinarritzen dira. Horiek horrela, Zumaiako Udalak eta Gizarte Zerbitzuetako profesional-taldeak babes eta laguntza zerbitzuok baliatzera deitu dituzte herritarrak, eta jakinarazi dute eskoletan, haurtzaindegian zein osasun zerbitzuan eskura daitekela informazio eskuorria.

*Los Servicios Sociales de Zumaia prestan numerosos servicios para promover el buen desarrollo y el buen trato de los niños, niñas y adolescentes de Zumaia. Su objetivo es analizar y apoyar las preocupaciones y dificultades que surgen en la convivencia familiar, en la situación personal, en las relaciones sociales, en la comunicación o en la responsabilidad parental y educativa. Para ello, se ofrece información, orientación, actividades de comprensión y toma de conciencia de lo que ocurre, o formación para promover cambios de hábitos, entre otros.*

*Todos los servicios están coordinados y ofertados por trabajadores/as sociales, educadores/as, psicólogos/as, psicomotricistas y otros/as profesionales, y la elaboración se basa en la relación de apoyo que se crea entre la familia y el equipo de profesionales. Por ello, el Ayuntamiento de Zumaia y el equipo de profesionales de los Servicios Sociales han llamado a la ciudadanía a hacer uso de estos servicios de protección y asistencia, informando de que el folleto informativo está disponible tanto en las escuelas como en la guardería y en el servicio de salud.*



Gizarte langileak, hezitzaileak, psikologoak, psikomotrizistak

# Zerbitzuak

## Familia aholkularitza

Helburua da familian eta seme-alaben zaintzan eta babesean sortzen diren kezka eta/edo zailtasunen aurrean informazioa eta aholkularitza ematea. Gai hauek lantzeko aholkularitza eskaintzen da: komunikazio eta harreman zailtasunak, heziketa ereduak, haurren beharrak, familia antolaketa eta egituran sortzen diren aldaketak...

***Asesoramiento familiar.** El objetivo es informar y asesorar ante las inquietudes y/o dificultades que surgen en la familia y en el cuidado y protección de los hijos e hijas. Se ofrece asesoramiento sobre las dificultades de comunicación y relación, los modelos educativos, las necesidades de los niños y niñas, los cambios en la organización y estructura familiar...*

## Familiako eskuhartzea: psikosoziala eta gizarte arlokoa

Haur edo nerabeak bere garapen egokirako zailtasun edota kalte nabarmenak dituenean eskaintzen da, eta honako gaiak lantzen dira: heziketan jokabide aldaketak bultzatzea, egoeraren kontzientzia hartzea, haur edo nerabearen autonomia indartzea, eguneroko antolaketa sendotzea, komunikazio eta harreman gaitasunak bultzatzea... Helburua da familiako kideek tratu ona eta babesa eskaintzeko trebeziak eta autonomia eskuratzea, sortu diren zailtasunak eta kalteak zaindu eta berriro errepika ez daitezen.

***Intervención familiar: psicosocial y social.** Se ofrece cuando el niño, niña o adolescente presenta dificultades o perjuicios significativos para su correcto desarrollo y se abordan temas como: impulsar cambios de conducta en la educación, tomar conciencia de la situación, reforzar la autonomía del niño, niña o adolescente, fortalecer la organización diaria, potenciar las capacidades comunicativas y relacionales... El objetivo es adquirir habilidades y autonomía para el buen trato y protección de los miembros de la familia, cuidando de las dificultades y daños que se han generado y evitando su repetición.*

## Kale Heziketa programa

Harreman, komunikazio, aisialdi eta formazio arloetan nerabeek dituzten beharrak lantzen dira taldean, nerabeen aisialdi eta denbora librearen testuinguruan. Helburua da nerabeen gizarte eta harreman abileziak sustatzea, eta norberaren autonomia eta autoestimua indartzea.

***Programa de educación en la calles.** En el grupo se abordan las necesidades de las y los adolescentes en materia de relaciones, comunicación, ocio y formación, en un contexto de ocio y tiempo libre adolescente. El objetivo es fomentar las habilidades sociales y relacionales de los adolescentes y potenciar su autonomía y autoestima.*

## Psikomotrizitatea

Haurraren garapenean aldaketak, nahasmenduak edo zailtasunak nabarmentzen direnean, edo izateko arriskua dagoenean gomendatzen da.

***Psicomotricidad.** Se recomienda cuando se pongan de manifiesto cambios, trastornos o dificultades en el desarrollo del niño o niña, o cuando exista riesgo de padecerlos.*

## Guraso eskolak

Heziketan laguntzeko prestakuntza, aholkularitza eta trukerako gunea da. Gai hauek lantzen dira: heziketa, komunikazioa eta harremanak, eta haur eta nerabeen beharrei eta gurasotasunari lotutako gaiak.

Zerbitzu horiek eskaintzeaz gain, herri mailan haur eta nerabeen tratu ona bultzatzeko sarea ere sustatzen dute Gizarte Zerbitzuek. Egoerak antzemateko eta elkarlanerako prozedurak lantzen dituzte herriko hainbat zerbitzuren artean. Honakoek parte hartzen dute, besteak beste: eskolak, osasun zerbitzua, haurreskolak, gaztegunea, ludoteka, udaltzaingoa...

***Guraso Eskolak (Escuela de Padres y Madres).** Es un espacio de formación, asesoramiento e intercambio de apoyo educativo. Se tratan temas de educación, comunicación y relaciones y temas relacionados con las necesidades y parentalidad de los niños, niñas y adolescentes.*

*Además de ofrecer estos servicios, los Servicios Sociales promueven una red para promover el buen trato de niños, niñas y adolescentes a nivel local. Trabajan procedimientos de detección de situaciones y colaboración entre diferentes servicios de la localidad. Participan, entre otros, escuelas, servicio de salud, haurreskolak, gaztegune, ludoteca, policía municipal...*

# Guraso Eskolak

0 ETA 18 URTE BITARTEKO HAUR ETA NERABEEN GURASOEI ZUZENDUTAKO TAILER ETA HITZALDIAK

**Hitzaldi guztiak:** Euskaraz **18:00etan** Oxford aretoan



URTARRILAK 30, ASTEARTEA
**Pornografia gaur egungo sexu-heziketa ote?**
EIDER GOIBURU
**Izen-ematea: urtarrilak 10-28**
brankaharrera@zumaia.eus



OTSAILAK 27, ASTEARTEA
**Harreman osasuntsuak lagun artean**
NEREA MENDIZABAL
**Izen-ematea: otsailak 5-25**
brankaharrera@zumaia.eus



MARTXOAK 19, ASTEARTEA
**Komunikazioa familian**
LEYRE CANO
**Izen-ematea: martxoak 1-17**
brankaharrera@zumaia.eus



APIRILAK 23, ASTEARTEA
**Nerabeak eta osasun mentala**
ESTIBALIZ ANSOTEGI
**Izen-ematea: apirilak 1-21**
brankaharrera@zumaia.eus

Antolatzailea:

Laguntzaileak:



# ATZO GAUR DA
## Izan zirelako gara

Frankistek fusilatutakoak eta faxismoaren aurkako erresistentzien fronteetan borrokan hildakoen omentzeko leku berri bat du Zumaiak. Monolitoa abenduaren erdialdean inauguratu zuen Udalak, familiartekoen eta herritarren ondoan egindako ekitaldian.

Abenduaren erdialdean Gernika parkean egindako ekitaldi hunkigarri batean, Zumaiako Udalak oroimen gune berri bat inauguratu zuen herritarrekin batera, frankistek fusilatu zituztenak eta faxismoaren aurkako erresistentzietan hil zirenak gogoratzeko. Aukeratutako tokian, lehen Gernikako arbola zegoen leku berean, orain oroimenezko monolito bat dago, 1936ko altxamendu faxistaren ondorioz hildako zumaiarren izenekin.

Ekitaldian hildakoen familiartekoak, elkarte memorialistetako kideak, instituzio desberdinetako ordezkari politikoak eta herritar asko elkartu ziren, frankismoaren aurkako borrokan bizia galdu zutenak gogoratu eta omentzearen garrantzia azpimarratuz. Monolitoa gudari, miliziano eta borrokalarientzako omenaldia da, errepublikaren eta euskal nazioaren balioen alde borrokatu zutenen memoria eta balioak gordetzeko ekarpena. Egia, justizia eta erreparazioa lantzeko konpromisoa dute instituzioek, eta helburu horri ere erantzuten diote egindako ekimenek. Halaber, hurrengo belaunaldientzat memoria kolektiboa gordetzearen garrantzia ....

Ekitaldi honetan, besteak beste, Jesus Aizpurua Zinkunegiren arrebak, Arantza Aizpuruak hartu zuen hitza. Eskaera argi bat luzatu zien hurrengo belaunaldiei: "Oroitu behar dugu halakorik berriz gerta ez dadin, horixe da 90 urteko emakume honen eskakizuna".



*En un emotivo acto celebrado a mediados de diciembre en el parque Gernika, el Ayuntamiento de Zumaia inauguró junto a los vecinos un nuevo espacio de memoria para recordar a los fusilados por los franquistas y a los que murieron en las resistencias contra el fascismo. En el lugar elegido, el mismo en el que antes se encontraba el árbol de Gernika, ahora hay un monolito conmemorativo con los nombres de los zumaiarras fallecidos por el alzamiento fascista de 1936.*

*En el acto se reunieron familiares de los fallecidos, miembros de asociaciones memorialistas, representantes políticos de diferentes instituciones y numerosos ciudadanos, que destacaron la importancia de recordar y homenajear a quienes perdieron la vida en la lucha contra el franquismo. El monolito es un homenaje a gudaris, milicianos y combatientes, una aportación para preservar la memoria y los valores de quienes lucharon por los valores de la república y la nación vasca. Las iniciativas realizadas responden también al compromiso institucional de trabajar la verdad, la justicia y la reparación. Asimismo, la importancia de preservar la memoria colectiva para las próximas generaciones....*

*En este acto tomó la palabra, entre otros, Jesús Aizpurua, hermana de Zinkunegi, Arantza Aizpurua. Hizo una clara petición a las siguientes generaciones: "Te-*

*nemos que recordarlos para que esto no vuelva a ocurrir, esa es la exigencia de esta mujer de 90 años".*

## Oroimena eta Giza Eskubideak Zumaian (1936-1959) txostena, herritarren eskura

Oroimen ekitaldian frankismoaren ondorioz hildako zumaiarrak oroitu bazituzten ere, asko dira garai hartan giza eskubide urraketak jasan zituzten zumaiarrak. Horiek horrela, giza eskubide urraketa guzti horiek jasotzen dituen txostena ere osatu du Aranzadik, Zumaiako Udalaren eskariz, eta herriko elkarte eta norbanakoen laguntzarekin. Txosten horretan Gerra Zibila nahiz gerraosteko errepresioa, atzeguardian emakumeen aurka eragindako errepresioa eta kanporaketak, erbestea, fusilamenduak eta desagerpenak, gerra kontseiluak eta epaiketak, ihes egindakoak eta desagertutakoak, errepresio ekonomikoa, garbiketak, atxilotuen esparruak eta errepresio lausoa izan dituzte aztergai lan hartan, eta liburuxka batean kontsultatu daiteke informazio guztia.

2019an argitaratu zuen Zumaiako Udalak Gerra Zibilean eta lehen frankismoan (1936-1945) izandako errepresioari eta giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa lana. 2023 urtean zehar, 1936tik 1959ra bitarteko aldi hura areago ikertzen eta orduko memoria historikoa osatzen jarraitu du Udalak, fundazio beraren eskutik. 2019an argitaratutako ikerketatik eta argitalpenetik abiatuta, identifikatuta dauden 1936-1945 bitarteko biktima guztiak sailkatu dira, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lehen frankismoko garairako ezarriak dituzten giza eskubideen urraketa mailaren arabera. Eta, bestalde, 1945-1959 bitartean errepresio frankistaren biktima izan ziren zumaiarrak identifikatzeko lana egin da. Txostena eskuragarri dago zumaia.eus webgunean eta udal liburutegian.

*Si en el acto conmemorativo se recordó*




















# elkarri entzun

ehbildu

**Denbora da poligrafo bakarra**

Berri Txarrak musika taldearen abesti batek hala dio, eta horrela da politikan ere. Zumaiako EH Bildun erabaki bat hartu genuen aspaldi, oposizioan geunden garaian: epe motzeko eztabaida alderdikoietan kateatu ordez gobernu bokazioa erakutsi behar genien zumaiarrei. Zumaiarrei hitz egin, beste alderdiei baino gehiago, proposamen propioak egin, eta konpromiso publikoak hartu eta bete. TAO-ren ezarpenaren garaiak ziren, eta oposizioan egon arren gaiarekin lotutako proposamen propioa osatu eta aurkeztu genien herritarrei. Dudarik ez: errazagoa zen guretzat beste bidea, sarri polemikoa izan ohi den gai hori oposizotik gobernua desgastatzeko erabiltzea, herrian giro txarra zabalduz... Nahiago izan genuen ordea gobernu bokazioa azaltzea ,gobernuan ez geunden arren. Alokairurako laguntzekin berdina egin genuen ondoren. Gero, emaitzak iritsi ziren eta Udal Gobernura heldu ginen. Legealdi plana osatu eta konpromiso konkretuak publiko egin genituen, horrek duen arriskuarekin eta bete beharrekoak zirela jakinda. Pandemia iritsi zen, eta gobernu bokazio horri elkarlanaren osagaia gehitu zitzaion: protagonismo eta lidergo konpartitua herritar eta eragileekin, herri bezala aritzeko. Orduan ere egon ziren oposiziotik gu epe laburreko eztabaidetan kateatzeko tentaldiak. Berriz errezeta berdina: epe luzeko begirada eta legealdi plana betetzea. Azken hauteskundetako emaitzek gure apustua sendotu dute, eta bestelako jarrerak zigortu. Irakaspenak ateratzea tokatzen zaigu denoi, eta bide berdinetik jarraitzea erabaki dugu: azken aldizkaritik hona, legealdi plana osatu eta publiko egin dugu. Epe luzeko proiektuak eta ekimen konkretuak. Hitza eman, berriz, betetzeko. Eta 2024ko aurrekontu proiektura eraman ditugu horietako batzuk. Bitartean ez dira faltako gure bidetik ateratzeko tentaldiak. Aurrekontuen lanketa garaian ere ikusi dugu, udaletxeko bileretan mahai gainean ezer ez eta komunikabideetan eztabaidak pizteko gogoa. Bakoitzak aterako ditu bere irakaspenak eta jakingo du zer komeni zaion. Guk argi dugu bai Zumaiari begira bai gure alderdiaren emaitzei begira zer den funtzionatzen duena: epe luzeko begirada, konpromiso publikoak eta hitza betetzea. Denbora baita poligrafo bakarra.

eaj pnv

**Lehenik eta behin, Urte Berri On denoi.**

EAJ-PNVk agintaldiko azken aurrekontuei ezezkoa bozkatu du.

2023ko aurrekontuetarako inbertsioen erdia 2022an gauzatu ez diren proiektuei dagokie. Esanguratsuenen artean: geltokiaren auzoa berrurbanizatzea, Juan Belmonteko ur-hornidura, San Jose auzoko etxeetan igogailuak jartzeko obrak edo kale-argiteria berritzea. Eta EAJ eta EH Bilduk adostutako Marianton parkearen estalpea ere 2023rako gelditzen da.

2022ko proiektuen gauzatze-maila % 20ra nekez iritsi dela ikusiz, 2023rako aurrekontuak ez zaizkigu egingarriak eta errealistak iruditzen, baizik eta hauteskunde-giroari dagozkionak eta EH Bilduk erakutsitako kudeaketa-gaitasunetik haratago daudenak.

Zumaiako historiako aurrekontu handienak izan arren, ez dute herritarrentzako premia larririk asetzen, hala nola etxebizitza. Adierazgarria da aurrekontuko 23,5 milioi eurotatik % 0,35 baino ez bideratzea etxebizitzara, alokairua sustatzeko programa batera, hain zuzen ere. Ez dago besterik.

Zenbait proiekturen alde bakarreko garapena salatzen dugu; adibidez, Marianton parkearen estalkia, kiroldegiaren eraberritzea eta Erkibe eraikina eta ingurua garatzeko proiektuak.

EH Bilduren gobernuaren azken urteetako gastuaren kudeaketak izan duen bilakaerak kezkatzen gaitu (pertsonalean soilik ia 2 milioi euroko igoera izan da 2019tik), eta ez da islatu azpikontratazioaren jaitsieran. Gainera, zerbitzuen bikoiztasunak aurki ditzakegu, hala nola Berdintasun teknikariarena eta Emakumeon Etxeko dinamizatzailearena, edo Zkoop coworking proiektuarena, gure iritziz eskualde mailan garatu beharko litzatekeena UKUEren bidez, jakinda urtero UKUEri 180.000 € bideratzen dizkiogula enpresa-garapenerako.

Nabarmena da udal gobernuak bere gehiengo absolutuarekin nahi duena egiteko bermea duela. Baina, agintaldi hasieran adierazitako elkarlanerako deia eta eskua luzatzea non gelditu diren jakin nahiko genuke.

*Conclusión: estamos ante un presupuesto de postureo, electoralista, que supera la capacidad de gestión de EH Bildu. Insistimos en denunciar el desarrollo unilateral de los proyectos y las inversiones, sin contar con la ciudadanía ni con sus representantes en la oposición.*

PSE-EE PSOE

***Los seis primeros meses***

*Hemos iniciado una nueva legislatura en el Ayuntamiento. Estamos en una fase con nuevos proyectos entre manos, y con una situación que pretendemos mejorar en el pueblo.*

*Se han aprobado las ordenanzas fiscales, también con nuestro apoyo, y no hemos votado a favor de los presupuestos por considerar que son una propuesta exclusivamente de EHBildu que tiene mayoría absoluta.*

*Hemos debatido sobre el Euskera, frente a quienes se sienten atacados por tratar de imponer uno de los idiomas, de los dos oficiales que tenemos, frente a las que opinamos que no se puede imponer la obligación de utilizar ninguno de los dos. Las administraciones no pueden obligarnos a vivir en uno de los dos idiomas, porque son las personas quienes tenemos el derecho a elegir el idioma o idiomas por el que optamos.*

*No hay duda de que en Zumaia, la mayoría de sus habitantes conocen y hablan el Euskera, no hay duda de que hay que apoyar su normalización y dar facilidades a su aprendizaje para que cada vez sean más las personas que lo utilicen, pero siempre deberá ser una opción de las personas y no, una imposición de las administraciones.*

*Un nuevo Plan General de Ordenación Urbana, un nuevo Plan de Movilidad, una perspectiva feminista en las políticas públicas, los cuidados, la renovación de equipamientos deportivos y culturales, nuevos ascensores públicos, la accesibilidad, la preocupación del comercio y de la hostelería, las obras de la calle San José, y las políticas de vivienda, ... son los retos del inicio de esta legislatura.*

# KLISK! KLISK! KLISK!

**1. Anari, 'Gariz eta goroldioz'**
Negu giroa epeltzeko, kultur ekitaldi ugari izan dira abendu honetan. Anari Alberdi kaleratu berri duen *Gari eta goroldiozko* eleberriaren inguruan aritu zen liburutegiko ganbaran, Alex Gurrutxagak gidatuta.

**2. Munduari itzulia**
Zumaiako haurrek Julio Verneren *Munduari itzulia 80 egunean* eleberrian oinarritutako bertsio libreaz gozatu ahal izan zuten urtarril erdialdean.

**3. Gospela euskaraz**
Urtarrilarekin batera Goiko Gela boskoteak gospela ekarri zuen Aita Mari aretora. Musika modalitate hori euskaraz ere abestu daitekeela erakutsi zuten zumaiarren aurrean.

**4. Izotz parkera irteera**
Aurten ere Ludotekako haurrek urteroko bisita egin dute Txuri Urdin izotz parkera.

**5. Kimikarekin jolasean**
Urtero bezala, Zumaiako haurrek kimika ikasteko aukera izan zuten neguko oporretan, *Kimikarin* tailerretan. 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekimena da eta zientziarekiko ikusmina piztea du helburu.

**6. Bizikletan adinik ez**
*Bizikletan adinik ez* egitasmoa Zumaian izan zen joan den urrian. Herriko adineko pertsonak kaleetan barrena ibili ziren trizikloetan. Eskoletako ikasleek ere parte hartu zuten dinamikan.

**7. Yayo Herreroren bisita**
Yayo Herrero antropologo eta ikerlariaren hitzaldiak txiki utzi zuen Emakumeon* Etxea. Sistema kapitalistaz, haren mugez eta aberastasunaren banaketaz aritu zen.















Argazkia: Baleike



# OTSAILA

**3, OSTIRALA**
ANTZERKIA
**HONDAMENDIA**
ARTEDRAMA
**20:00** Aita Mari aretoa

**4, LARUNBATA**
KANTU KALEJIRA
**BEHEKO PLAZA ABESBATZA**
**18:00** Beheko Plaza

**2, OSTEGUNA**
HITZALDIA
**MENDEBALDEKO SAHARAREN EGOERA**
TALEB ALISALEM
*Darahli elkartea*
**19:00** Aita Mari aretoa

**5, IGANDEA**
**KONTZERTU SOLIDARIOA**
*Darahli elkartea*
**19:00** Zumaiena

**9, OSTEGUNA**
ESKOLA FEMINISTA
**FEMINISMOAREN HASTAPENAK**
EMAGIN
**18:30** Emakumeon* Etxea

**9, OSTEGUNA**
ZINEFORUMA
**EL MENÚ**
*Ostarrena*
**19:00** Aita Mari aretoa

**14, ASTEARTEA**
IRAKURRI MATTE
**BAR GLORIA**
NEREA IBARZABAL
**18:00** Moila gela (Alondegia)

**14, ASTEARTEA**
ZINE EMANALDIA
**BILBAO MENDI FILM FESTIVAL TOUR**
*Inda Mendi elkartearen 50.urteurrena*
**19:30** Aita Mari aretoa

**15, ASTEAZKENA**
HITZALDI ZIKLOA
**EUSKARA, BESTELA EZ GARA**

**16, OSTEGUNA**
ESKOLA FEMINISTA
**FEMINISMOAREN HASTAPENAK**
EMAGIN
**18:30** Emakumeon* Etxea

**16, OSTEGUNA**
ZINE EMANALDIA
**BILBAO MENDI FILM FESTIVAL TOUR**
*Inda Mendi elkartearen 50.urteurrena*
**19:30** Aita Mari aretoa

**20, ASTELEHENA**
HAURRENTZAT IKUSKIZUNA
**PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS**
**15:00 eta 17:30** Zumaiena

**23, OSTEGUNA**
ZINEFORUMA
**DECISION TO LEAVE**
*Ostarrena*
**19:00** Aita Mari aretoa

**24, OSTIRALA**
LIBURU AURKEZPENA
**BERPIZTU**
KEPA JUNKERA
**19:00** Oxford aretoa

# MARTXOA

**1, ASTEAZKENA**
HITZALDI ZIKLOA
**EUSKARA, BESTELA EZ GARA**

**3, OSTIRALA**
ANTZERKIA
**YERMA**
LA DRAMÁTICA ERRANTE
**20:00** Aita Mari aretoa

**4, LARUNBATA**
ERAKUSKETA IREKIERA ETA BISITA GIDATUA
**ITZALPEKO EMAKUMEAK**
**11:00** Oxford aretoa

**7, ASTEARTEA**
IRAKURRI MATTE
**AZKEN ETXEA**
ARANTXA URRETABIZKAIA
**18:00** Moila gela (Alondegia)

**7, ASTEARTEA**
CLOWN ANTZERKIA
**SEX O NO SEX**
VIRGINIA IMAZ
**18:30** Emakumeon* Etxea

**8, ASTEAZKENA**
**MARTXOAREN 8KO EKITALDIAK**

**9, OSTEGUNA**
ZINEFORUMA
**LA EMPERATRIZ REBELDE**
*Ostarrena*
**19:00** Aita Mari aretoa

**11, LARUNBATA**
BAKARRIZKETA
**MAGMA MIA**
BEATRIZ EGIZABAL
**19:00** Emakumeon* Etxea

**14, ASTEARTEA**
SOLASALDIA
**EMAKUMEAK GARAI BATEAN ETA GAUR EGUN MENDIAN**
AMAIA ARANZABAL, MONTSE LASTERRA ETA MAIALEN ROJO
*Inda Mendi elkartearen 50.urteurrena*
**19:30** Aita Mari aretoa

**16, OSTEGUNA**
HITZALDIA
**SILVIA VIDAL ESKALATZAILEA**
*Inda Mendi elkartearen 50.urteurrena*
**19:30** Aita Mari aretoa

**17, OSTIRALA**
IKUSKIZUNA
**AMARAUN**
LANKU
**20:00** Aita Mari aretoa

**19, IGANDEA**
HAURRENTZAT IKUSKIZUNA
**AHO BETE HORTZ**
EKAIN PAILAZOA
**12:00** Aita Mari aretoa

**30, OSTEGUNA**
BAKARRIZKETA
**DESPOTORRE**
RAQUEL TORRES ETA ANE LINDANE
**19:00** Emakumeon* Etxea

# ERAKUSKETAK

OXFORD ARETOAN

**OTSAILAK 3-17**
Inda Mendi elkartearen 50. urteurrena

**MARTXOAK 4-26**
Itzalpeko emakumeak

ALONDEGI SARRERAN

**OTSAILAK 3-28**
Inauterietako kartel lehiaketako bilduma

# FESTAK ETA DEIALDIAK

**OTSAILA-MARTXOA**
INDA MENDI ELKARTEAREN 50. URTEURRENA

**OTSAILA-MARTXOA**
'EUSKARA, BESTELA EZ GARA' HITZALDI ZIKLOA

**OTSAILAK 17-20**
INAUTERIAK

**OTSAILAK 25**
XXXVIII. HERRI LASTERKETA

**MARTXOAK 8**
EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**Instagram: @ZumaiAgenda**
**Twitter: @ZumaiAgenda**
**Facebook: Zumaia Agenda**